

hik hasi
udako
topaketak

hik hasi

2001eko URRIA



Senarrak sabeleko
mina du.

Ez da, bada,
haurdun
egongo?

Afektibitatea eta
Sexu Hezkuntza

6.

monografikoa

3,60 euro

DISPUNDA Zart

Argitaratzailea:

XANGORIN

Errekalde hiribidea 59,
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.14.08
Fax: 943/ 37.21.54
hikhasi@hikhasi.com

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

hik hasi Udako Topaketen
Koordinatzaileak:
Joxe Mari Auzmendi
eta Josi Oiarbide

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko marrazkia:
TIBO marrazkilaria

**Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia**
2001/V/15

Kopurua: 4.000 ale

5 hitzaurrea

AFEKTIBITATEA ETA SEXU HEZKUNTZA

6 Euskal Herriko sexu hezkuntzaren
jardunari buruzko hausnarketa
Amaia Vazquez

8 Hezkuntza Afektibo-Sexuala
Javier Gómez

22 Sexualitatea gelan: giza bizipen
sexuala irakaslearen ikuspuntutik
Jerónimo Bellido

24 Hezkuntza Afektibo-Sexuala:
gure sexu dimentsioarekiko
ezinbesteko adiskidetzea
Raúl Díaz

30 Tailerra (0-6 urte)
Amaia Vazquez eta Xabier Iturbe

34 Tailerra (6-12 urte)
Mertxe Murua eta Garbiñe Merino

36 UHIN BARE tailerra
**Javier Gómez Zapiain, Pilar Ibaceta eta Josean
Pinedo.**

Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza

Uda 2000

h i t z a u r r e a

L

ehendabiziko **hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak** 2000. urteko uztailaren 4, 5 eta 6an ospatu genituen. Hainbat gai eta arlo jorratu ziren burututako 11 ikastaroetan, eta horietako bat izan zen “**Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza**”.

Monografiko honetan ikastaro hartako hizlarien jarduna jaso da. Ikastaroan horien guztien ekarpenei etekina atera baldin bazitzaien, liburuxka honekin are gehiago atera ahalko dela uste dugu. Hori da bederen gure asmoa; eguneroko lanerako baliagarria izango den materiala eskaintzea eta zuen eskuetan jartzea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikastaroan parte hartu zuten guztiei eta bereziki hizlariari, beraien lana izan baita esku artean duzuen argitalpenaren iturria.



hik hasi
udako
topaketak

2.000ko uztaila. **Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza • 3**

Euskal Herriko sexu hezkuntzaren jardunari buruzko hausnarketa



Amaia VAZQUEZ

Psikologoa eta sexologoa

Euskal Herrian sexu hezkuntzaren inguruko lehenengo proiektuak frankismoa bukatu zenean hasi ziren. Egia esanda, oso ikastetxe gutxitan jorratzen zen ugalketatik urruntzen zen eredurik, eta gainera, ez zen egoten ikastetxearen plangintzaren barruan, irakasle aurrerakoiren baten ekimena izaten zen.

4 • hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Nahikoa baldintza jardun genuen urte haietan. Hala ere, garbi geneukan bizitutako eredu errepresiboetatik aterata behar genuela eta informazio sexuala helarazi behar genuela ugalketaren eskeumatik aterata eta gozamenaren eta komunikazioaren bizipenen jabe bihurtu ahal izateko.

Idea horiekin zenbait programa-keta kurrikular burutzen hasi ziren osasunaren lanketaren barruan. Garai hartan osasunari buruz ari zena modan baitzegoen eskolatan. Errealitatea, ordea, zeharo bestelakoa zen. Erraza egiten zitzaigun hortzak nola garbitu behar ziren erakustea, baina organu genitalak nola garbitu behar ziren erakutsi behar genuenean, hurrengo unitatera pasatzea erabakitzen genuen. Oso material gutxi geneukan, euskaraz gutxiago, eta horri guztiari gure ezintasun pertsonala gehituz, afektibitatea eta sexu hezkuntzaren arloak hutsik gelditu ziren eskolatan.

Pixkanaka-pixkanaka sexu hezkuntzarako monitorea ugaltzen hasi ginen, eta eskola, irakasle eta guraso ausartenek ikasleei zenbait ikastaro emateko deitzen ziguten. Nahiz eta oso ongi egiten saiatu, adabaki-lana egin genuen, eta oraindik ere hala egiten jarduten dugu. Ikastaro trinko horietan gehienez ere informazio sexuala eman daiteke, baina ez da nahikoa. Urte hauetan guztietan zerbait garbi gelditu baldin bazaigu honako hau da: informazio sexuala beharrezkoa izanik ere, ez dela nahikoa sexualitate atsegina bizi ahal izateko. Afektibitate eta sexu hezkuntza egokiaren informazioari bizipenaren eta komunikazioaren ereduarena erantsi behar zaio. Alegia, informazio zehatz orok zernolako bizipena eragiten duen ikas-


le bakoitzarengan. Hain zuzen ere, bizipen horretatik abiatuta arituko ginateke lanean gela barruan.

Aipatutako eredu horretan jardutea da egungo erronka, eta lan hori egin ahal izateko sexu hezkuntzarako hezitzaileok irakasle eta gurasoei laguntzeko egon behar dugu. Beraz, gure eginkizuna ez da izango geletan sartzea, lan honek egunerokotasuna eskatzen baitu, portaera eta jarrera sexualak ez dira-eta sei egunetan aldatzen. Etengabeko lana da, beraz.

Gaur egun, gainera, badugu material lagungaririk. Irakasleok geure burua landu behar dugu sexualitateari diogun beldurra kentzeko. Horrek izan behar du aurreneko urratsa gero ikasleen aurrean jarri ahal izateko. Guk desioari beldurra badiogu, nekez helaraziko diegu askatasun mezurik ikasleei. Alternatiba, gure ustetan, ikastetxe bakoitzak proiektu kurrikularren barruan sexualitatea txertatzea da. Aldi berean, garbi daukagu gai hau jorratzeko kokapenik errazena eta eraginkorrena tutoretza dela, eta hori defendatzen dugu.



Hezkuntza Afektibo-Sexuala



Javier GOMEZ ZAPIAIN

EHUko Psikologia Fakultateko Nortasuna,
Ebaluazioa eta Tratamendu Psikologikoen
Departamentuko irakaslea

Sexu hezkuntza, sexualitate hezkuntza, hezkuntza afektiboa, afektibitate hezkuntza, hezkuntza sexual-afektiboa, hezkuntza afektibo-sexuala.

Batzuek izen batzuk, eta besteek beste batzuk, aliritzian erabiltzen dira, eta susmoa dut nork bere baitako gogoetak agindurik baino, garaian garaiko modak bultzaturik egiten dela.

Zenbaitek, berriz, izen hautua identitate marka bihurtzen du eta errezeloz begiratzen dio beste formaren bat aukeratu duenari, esentziaren bati eraso egin izan balio bezala hartuz.

Nire ustez, horren guztiaren koska ez dago labelean, izenak duen oinarri teorikoetan baizik. Hezkuntza afektibo-sexuala izendatu dut nire artikulua, baina ez nuke eragozpenik izango aipatu beste edozein izenez, hezkuntza sexuala adibidez, izendatzeko.


Artikulua, Euskal Herrian berriki gauzatu dugun esperientziatik abiatuta, hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko gogoeta da. 1966an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun Saitetako batzorde bateratu batek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako programa afektibo-sexual bat osatzeko enkargua eman zion Euskal Herriko Unibertsitateari (Gómez Zapiain, J., Ibaceta, P. eta Pinedo, J.A., 2000). Hurrengo urteetan UHIN BARE programa osatu zen. Euskal Herriko bederatzi zentrotan esperientzia martxan jarri zen, eta 2000ko otsailean argitaratu zen azkenik. Egun, hedapen fasean gaude eta Euskal Herriko zentro publiko nahiz pribatu guztien eskura dago aipatu programa.

Zer ulertzen dugu sexualitateaz?

Sexuaren jatorriak berak ezartzen du gizakiaren sexualitatea ulertzeko eredu bio-psiko-soziala, egungo sexologiako ikertzaile eta teoriko nagusien artean onarpen zabala duen premisa izanik berau (Carrobles, 1990; Byrne, 1986; Reiss, 1983; Geer y O'Donohue, 1987; Lopez eta Fuertes, 1989; Levine, 1992).



1. IRUDIA.- Sexuazioan azaltzen diren elementuak.



Filogeniak ekarpen garrantziatsuak egin ditu gizakiaren sexualitatearen jatorria ulertzeko, eta ondorioz, haren kontzeptua finkatzeko ere. Lehendabizikoa, dimorfismoarena da: bi forma, bi gorputz sexudun izatea eta sexuari ezartzen zaizkion ezaugarri kulturalak dira nortasun sexualaren oinarriak. Bigarren ekarpena motibazio, desio eta plazer sexualaren bilaketarena da. Hirugarrena, lotura afektiboaren agerpenarena, pertsonen arteko harremanetan beharrezko den segurantzaren funtsezko zutabea izanik berau (ikus 1. IRUDIA). Laugarrena, sexualitatearen erregulazioarena: zer den egokia edo desgokia, hots, sexu aldagaiaren funtzioaren aldaketa. Ekarpen horiek gizakiaren esperientzia afektibosexuala hobeto ulertzea ahalbidetuko digute.

Sexualitateak, portaera sexual hutsean geratu gabe, pertsona sexudunak garen baieztapenaren inguruko guztiarekin du zerikusia. Sexuazioa, sexudun pertsonak bilakatzeko prozesuari deritzo. Berez, ez "GARA" ez emakumezko eta ez gizezko; emakumezko eta gizezko "EGIN" egiten gara. Eraikuntza hori biologiaren oinarri sinpleenetik psikosoziologiaren arlorik korapilatsuenera doan prozesu konplexua da. "GAREN" hori herentzia filogenetikoak uzten dizkigun egokitzapenezko programazioei edo joerei esker gara; esaterako, plazererako joera edo besteekiko harremanetan segurtasunerako dugun joera funtsezko beharrak bailira bizitzen ditugu. Esan beharrik ez dago gizarteratzeak eta familiar barneratzeak ere horretan laguntzen duela. Familiaren bitartez gauzatzen den sozializazioa, kulturaren zamaren eramaile den aldetik, erabakigarria suertatzen


da. Hala ere, bi faktore horien sintesia norberaren biografian, historian eta esperientzia pertsonaletan gauzatzen da nagusiki. Egin diezaiegun so ideia horiei.

Emakumezko edo gizezko izatea X-Y kromosomen kasualitatezko elkarketaren gorabeheran dago. Horrek, ordea, ez du sexuazioa erabat moldatzen, bideratu baino ez du egiten. Maskulinoa eta femiinoa antagonikotzat hartu ditu beti gizarteak, kongruentzia ereduaz ezagutua izan da hori (Martinez-Benlloch, Barberá, Pastor, 1988).

Baina sexu desberdinketa bi formatan banatzeko prozesua da, sexu batekoa nahiz bestekoa izan utero barruko bizitzan zehar desberdintasunik gabeko une berdina igarotzen dira. Era berean agertzen dira hainbat eragile banatze une garrantzitsuetan. Bitan banatze hori ez da simetrikoa izaten. Biologiak argi azaltzen du, oraindik dudarik balego ere, naturak feminitatearen alde egiten duela. Horretatik gutitiek ondoriozta dezakegu pertsona bakoitzak modu berezian, bakarra eta errepikaezina den moduan, hain zuzen ere, garatzen duela bere sexuazioa.

Norbera da, beraz, bere gorputz-tasun sexuatu garatzen duena. Hori eta norberaren ingurumen kulturean egingo duen sozializazioa izango dira nortasunaren oinarriak. Ni, ni naiz eta emakumea, emakumezko gorputza dudalako; eta ni, ni naiz eta gizona, gizezko gorputza dudalako. Gaurko ingurumen kulturalak estereotipok sortu eta bultzatu egiten ditu. Beraz, ditugun sexuazio erreferentziak, jeneralean, helburu komertzialen arabera moldatutako gorputz ederrenen ereduak izaten dira. 2. irudiak, neurri batean bederen, sexuazioa erlatibizatu egiten du, eredu horiek bi aldetako puntetan kokatzen baititu. Kurba horri kasu eginez, beraz, oso pertsona gutxi koka daiteke gune horretan. Interesgarria da grafikoaren erdiguneari erreparatzea. Gune horretan zalantzan dauden pertsonak kokatuko liriteke. Jeneralean, uste denaren kontra, egoera hori ez da ez ezohikoa, ez eta patologikoa ere, sexuazio proiektu berezi baten emaitza baizik. Emaitza horretan baino hura ulertzeko gaitasun ezean dago koska, ordea.

2. IRUDIA. Sexuazioa bitan banatzeko prozesua da.



Gauza bera esan dezakegu ikuspegi kultural batetik ere. Gizarteak agintzen du zer den emakumezkoa edo gizonetzkoa izatea. Azken urteotan pil-pilean dagoen generoaren kontzeptua, emakumezkoa-gizonetzkoa, errealitateari ezarritik joan zaizkion ezaugarriak betetik dago. Era horretan kulturak generoari buruzko zama botatzen dio gainera jaioberriari.

Eta haurraren sexuazio biologikoaren emaitza izan den bezalako portaera izatea eskatuko zaio (Fernandez, 1987).

Mendebaldeko kultura oso hertsia da aldakortasun sexualarekiko. Zer esan nahi du emakume ala gizon izateak? Erreferentzia gogor estereotipatutako eredu sexualetan daukagu. Emakumezkoa izatea garaiko eredu bezalako gorputza edukitzea eta gizarteak espero duen bezalako portaera izatea da: goxoa, agindupekoa, sentibera, zaintzaila, ondokoen ongizateaz arduratzen dena, gizonetzkoak erakargarri iruditu beharko zaizkio eta gizonetzkoentzat desiragarria dela sentitu beharko du. Gizonetzkoa izatea eredu maskulino jakin bateko gorputza eduki eta haregandik espero den bezalako portaera izatea da: segurua, lehiatsua, gogorra, aktiboa, independentea, erasotzaila, emakumezkoak erakargarri iruditu beharko zaizkio eta emakumezkoek desiratzen dutela sentitu beharko du. Eredu horietatik desbideratzek edonoren osotasun sexuala jartzeko zalantza segituan. Ikusi bestela: onartzen al da itxura sendoko emakumezkoa, segurua, erasotzaila, independentea, gogorra, kementsua, gizonetzkoengatik interesik azaltzen ez duena? Onartzen al da itxura ahuleko gizonetzkoa, mantsoa, sentibera, menpekoa, ondokoen zainketaz arduratzen



dena, zenbait arlo femeninorekin bat datorrena? Seguru ezetz.

Gure ikuspegitik, aldiz, ingurumen soziala sexualitatearen garapenean eragin handia izan dezakeen erreferentzia oso indartsua da.

Ikusten ari garenez sexuazioa oinarri biologikoen eta eredu kulturalen elkarrekintzaren ondorioa da. Orduan, sexologiako planteamenduak jarraituz, sexualitatea sexuazioaren emaitza bizitzeko era izango litzateke. Beraz, pertsona adina sexuazio forma eta sexu daude (Amezúa, 1979). Sexualitatea norberaren proiektu sexuala bizitzeko era da, gizonetzko edo emakumezko bezala munduan egoteko era da. Horregatik, pertsona adina sexualitate eta sexualitate hori bizitzeko era daude. Hauxe esan genezake: izan, emakumezko edo gizonetzko maizelarik, sexudun gorputza dudalako naiz ni; baina baita besteenetatik ezberdina den izateko modu berezia dudalako ere. Sexuazioa bizitzeko berezko era hori bakoitzaren biografiaren emaitza besterik ez da, hots, familia eta gizarte eragileen bidez transmititu den biologiarren eta kulturaren

elkarketaren emaitza. 2. irudian ikus dezakegu norberaren sexuazioaren araberrako sailkapena. Prozesu hori izugarri malgua da eta emaitzen ugaritasuna da bere ezaugarria. Norberak, beraz, bere sexuazio proiektu berezia garatu beharko luke bere biografian zehar eta hezkuntza afektibo-sexualak horretan lagundu beharko liguke.

1. irudian ageri denez, sexuazioaren ezaugarrietako bat motibazioa sexuala dugu. Hasiera-hasieran bere funtsezko funtzioa ugaltasuna bermatzea izan bazen ere, eskala filogenetikoan gora egiten dugun heinean, motibazio sexuala ugaltasuna baino haratago doa, eta harremanezko funtzio ludikoak bereganatzen ditu. Izan ere, eskala filogenetikoan goraka eginez gero, portaera sexuala sistema endokrinotik bereizi egiten da eta gizarte ikasketak berebiziko garrantzia hartzen du orduan. Jatorrizko motibazio sexualaren ugaltzeko menpekotasun hori gainditu eta gero, plazaren bilaketak eta beharrak esanahi desberdinak hartzen ditu gizakien gain. Honezkerok desio sexuala ez da instintiboki hertsia den motiba-





zioa, aurrez finkatu gabeko helburuak dituen irrika malgua baizik. Desio sexuala libreki eta zuzenean asebate daiteke, atzeratu egin daiteke, beste hainbat helburutara desbideratu edota zenbait unetan uko egin.

Desio sexuala (1) filogenetikoki jasotzen dugun irrika da. Sistema sexual baten jabe gara eta hari esker dugu balentzia erotikodun eta asebetetze sexualera bultzatzen gaituen estimuluek erantzuteko gaitasuna. Desio sexuala, anatomikoki hitz eginez, hipotalamoaren aurreko preoptikoan eta bentromedialean dago errepresentaturik, eta sistema neuroendokrinoak, hots, hormonak (testosteronak batik bat) eta neurotransmisoreak erregulatzen du. Aldi berean hipotalamoko zentroak neokortexarekin elkarloturik daude. Hortik ondorioztatzen da desio sexuala norberaren bizitzaren esperientziaren eragina duela, alegia biografiarena. Desio sexuala indar motibatzailea denez, portaera sexualak eragiten dituen ekintzarako joeraren bidez adierazten da. Portaera horiek autoerotikoak (norberarenganakoak) edo heteroerotikoak (besteenganakoak) izan daitezke. Azkenak heterosexualak edo homosexualak izan daitezke.

Gurasotasuna desio sexualaren beste funtzioetariko bat da. Sexua-

litatearen parte da, baina hura ezin da soilik honetara mugatu. Gure espeziea iritsi den eboluzio maila honetan amatasuna emakumezkoen aukeran dago. Hezkuntza afektibo-sexualak lekua eskaini behar dio funtzio horri, haren erregulaziorako baliabideak eskainiz. Lehenago ere aipatu dugu sexualitatearen kontzeptua portaera sexualetara mugatua izan dela apropos, ideologiak tartean zirelarik. Bistakoa da horiek sexualitatearen funtzezko arloa osatzen dutela ere, baina sexualitatea ezin da haietara soilik mugatu. 1. irudira itzuliz, sexuazioaren arlotariko bat lotura afektiboarena da. Bowlbyk azaldu zuen bezala (1969) atxikimendua kumeak (babesik gabe jaioak) bizirik jarrai dezan gurasoen eta kumearen arteko lotura bermatzen duen sistema da. Espezie guztiak garatu dituzte guraso eta kumeen arteko portaerazko mekanismoak. Kumeen garapen egokia bermatu ahal izateko, kumeen beharren seinalean eta helduen zainketan oinarritutako sistema, hain zuzen ere. Atxikimendu sistemarik ez balego eta loturarik sortuko ez balitz, bere kasa aurrera egiteko gaitasunik gabe jaiotzen diren espezieen kumeak hil egingo liriateke eta espezieak porrot egingo luke.

Gizakiok lotura egiteko eta kontaktua lortzeko "bideratuak" gaude. Jaio orduko lotura horretan lagunduko duten berezko erreflexuak ditugu: mairuaren erreflexua, irribarrea, ukitzerakoan eskuek egiten duten indarra eta abar. Jaioberriarekin harreman pribilegiatuak dauzkan atxikimendu irudiak haurren seinaleak interpretatzeko eta zalantzarik gabe bere eskaerei erantzuteko gaitasuna


behar du. Atxikimendu sistema haurra babes beharrean, bakarrik edo beldurrez dagoenean pizten da eta atxikimendu irudiaren hurbiltasuna eta kontaktua bilatzen du. Atxikimendu irudiak berebiziko bi funtzioak betetzen ditu: segurtasun eta babesleku izatea.

Haurren garapenaren hastapenetan bere segurtasuna besteen eskuetan dago, hau da, atxikimendu irudiaren esku, guraso biologikoa izan ala ez izan. Lehen unetik sortzen den harreman honek baldintzatzen ditu oinarritzko segurtasuna eta konfiantzazko sentimenduak. Lotura horren kalitatea nolakoa izan, halakoa izango da haurren segurtasun maila. Garai horretan haurra eta atxikimendu irudiaren arteko harremanaren inguruan sortzen da barne eredu deitzen dena. Barne ereduaren barruan sartzen dira estimuaren inguruko norbere buruarekiko duen eredu, eta baita besteen eredu ere, haienganako duen konfiantzaren araberkoa izango delarik. Aurrerantzean barne ereduak aginduko dio izango dituen harremanetan. Atxikimendua aztertu duten adituek, laburtuz, hiru atxikimendu mota bereizi dituzte: segurua, antsia handiko anbibalentea, eta saiheskorra. Bakoitzak bideratzen du pertsonen arteko erlazioei heltzeko era ezberdin bat.

Lotura afektiboaren araberkoa izaten da segurtasun emozionala eta oinarritzko konfiantza ere. Bi helduk elkarrekin harreman sexualak izan nahi dituztenean intimitatearen esparruan gauzatzen dira, eta esparru horretantxe azaltzen dira segurtasun emozional ezak eragindako oztopoak. Gogora dezagun zailtasun sexual askoren zergatiak, hein handi batean, intimitateari beldurra izatearekin duela zerikusia (Kaplan, 1979).

(1) "Sistema sexual" terminoa zentzu erlatiboan erabiltzen dugu, ez baitago arna, odol eta beste sistema organikoak bezain definitua.

3. IRUDIA.- Giza esperientzia afektibo-sexualaren jatorria.



Lotura afektiboak benetan adierazten diguna atxikimendu irudiekin dugun harremanetan seguru sentitzeko dugun beharra da; amarekin, aitarekin, anaia-arrebekin, aitona-amonekin, lagunekin, neska-mutil lagunekin, kideekin.

Maitatzea eta maitemintzea, Hazan eta Shaverrek (1987) zioten bezala, dira atxikimendu irudien eboluzioan gertatzen diren lotura afektiboen beste espresio bat. Horregatik, sexualitatearen kontzeptua osatzeko garrantzizkoa da berezi beharko lirakeen bi dimentsio hauek identifikatzea (ikus 3. irudia). Alde batetik desio sexuala. Honek lehenago esan dugun bezala, plazer sexualaren bilaketara bultzaten gaitu, portaera autoerotikoen edota konpartituen bitartez. Bestetik maitasuna eta maitemintzea. Horrek beste baten kontaktuaren bila eramaten gaitu,

“bestearekiko” loturaren bila, segurtasun oinarri den eran. Jatorri desberdineko bi dimentsio dira, eta aparte edo batera gerta daitezke bizitzaren zikloko garaietan. Ikus ditzagun zenbait adibide.

Edozein nerabek, emakumezko nahiz gizonezko izan, haurtzarotik nerabazarora igarotzeko garaian sortutako krisiarengatik familiarekin gaizki konpontzen denean, gabezia afektibo handia baldin badu, bere bakardade sentimendu hori itzaltzeko biziki nahi izan dezake neska-mutil lagun bat izatea. Baliteke egoera horretan desio sexuala esperientzia erotikorenean horretan ez agertzea, bere heldutasun mailak ez diolako egoera horri heltzeko adina indar ahalbidetzen. Gure kulturaren egoera hori emakumeen artean gizonezkoen artean baino sarriago gertatzen da, eta hori orekatzen ere lagundu

beharko luke hezkuntza afektibo-sexualak. Beste egoera bat izan daiteke desio sexualak bultzatzen esperientzia erotikoa bizitzeko gogoa areagotzea lotura afektiborik izateko konpromisorik nahi gabe. Egoera hori nerabe mutilen artean sarriago gertatzen da, kulturalki bultzaturik seguraski. Horrela balitz, hezkuntza afektibo-sexualak konpentsatu beharrekoa izango litzateke.

Edozein modutara, psikologiaren ekonomiaren oinarriko printzipioarengatik uste dugu pertsonak sexualki desiratzen dituzten beste pertsonekin maitemintzen direla. Halare, gizakien esperientzia afektibo-sexualak egoki ulertzeko bi dimentsio horiek berezi behar dira, eta ez biak nahastu.

Laburtuz, uste dugu, jeneralean, erabiltzen den sexualitatearen kontzeptua ia erlazio sexualetara soilik

murrizten dela, hots, portaeraren arlora. Alta, uste dugu kon-tzepzio zabalagoa garatzea komenigarria dela, bere osotasunean aztertu ahal izateko. Beharrezkoa da gogoeta egitea, hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko planteamenduak batu ahal izateko.

Sexualitatearen eta sexu hezkuntzaren kontzeptua

Nolakoa sexualitatearen kontzeptua, halakoa sexu hezkuntza. Norbaitentzat sexualitatearen kontzeptua ugalketara murrizten bada, kontzeptu horri dagokion hezkuntza sexualaren oinarria ugalketaren anatomiaren eta fisiologiaren ikasgaien inguruan garatuko da. Beste norbaitek sexualitatea ezarritako morala hausteko gai den sexu sen indartsu eta arriskutsura murrizten badu, hark proposatuko duen sexu hezkuntza moral jakin bateko doktrineta oinarrituko da, gure inguruan katolikoan. Aldiz, sexualitatea era laiko batean ulertzen bada, portaera sexualari dagozkion arriskueta murrizten bada, sexu hezkuntza hiesaren inguruko informazioan, sexuaren bidezko gaixotasunetan eta antisorgailuen metodoen inguruko informazioan oinarrituko da.

Orain arte egin dugun gogoetak proposatzen dugun hezkuntza proiektua sustatu eta guk dugun sexualitatearen kontzeptua oinarritzeko balioko digu. Haren erreferentziak aipa ditzakegu:

* Sexualitatea, gizezkoa edo emakumezkoa garen legez, munduan kokatzeko modua da.

* Pertsona adina era daude emakumezko edo gizezko izateko.

* Sexuazioa bitan banatzeko prozesua da, biologikoki sinpleena den formatik psikologikoki konplexuagoa denaraino.

* Pertsonala, bakarra eta errepi-kaezina da prozesu hori.

* Etengabe eraikitzen ari den prozesu dinamikoa da sexuazioa.

* Sexualitatea adinaren arabera aldatzen joaten da.

“Sexu hezkuntza egitea eztabaidarako sua piztea da” (Amezúa, 1973); beraz, hezkuntza afektibo-sexualaren funtzioa da prozesuan zehar gizezkoak emakumezkoak bezala munduan egoteko era eraiki eta garatu behar diren elementuak agerian jartzea. Horixe litzateke ikuspegi kontzeptualaren abiapuntua. Gure ikasleak beste garapen psikologikoarekin batera beren sexuazioa bizitzeko era ere garatuko dituen izakiak bezala hartu behar ditugu, eta ez beren bulkada sexualen menpean dauden biktimak balira bezala. Diskurtsoa airean gera ez dadin “izaki sexuatu legez munduan egoteko era” adiera horri mamia eman behar zaio. Jaiotzaren unetik beretik sexuazio biologikoak erreakzio kultural jakin bat eragiten du, eta beraz estereotipo sexualak ere bai. Horren guztiaren emaitzez norberaren nortasun sexualaren kontzientzia azaltzen da. Sexu heziketak landu beharko dituen elementuak, beraz, pertsonak bere gorputz sexuatuak egoki integratzen lagundu beharko die, gizon edo emakume izateko era pertsonala kritikoki garatzen lagundu beharko die. Dударik ez dago sexuen arteko ohiko desoreka konpentsatuko dituen elementuak eskaini beharko dituela.

Orain arte ikusi dugunez, desio sexuala sexuazioaren elementurik garrantzitsuenetarikoa da. Desio sexuala asebetetzeko modua gizon edo emakume legez munduan egoteko eta izateko moduaren osagaia

da. Euren desio sexuala ezagutzen lagundu beharko du hezkuntza afektibo-sexualak, bere adierak ezagutzeko, norberaren eta besteen baitan, eta horrek eragin ditzakeen portaerei zentzuzko irtenbidea bilatzen. Bestalde, begien bistakoa da emakumezkoek eta gizezkoek, hetero edo homosexualak izan, desberdin esperimentatu eta bideratzen dutela desio sexuala. Hezkuntza afektibo-sexualak gai guztiak lantzeko tarteak eskaini beharko ditu.

Azkenik, emakumezko edo gizezko moduan munduan egoteko erak badu sexualitatearen erregulazio sozialarekin zerikusia. Hezkuntza afektibo-sexualak baztertu beharko lituzte sexu erregulazioaren forma diskriminatzaileak. Norbanako autonomia bultzatu beharko luke zenbait sinesmen edo ideologiek bultzatzen dutenaren aurka. Bultzatu beharko luke enpatia, besteen beharrak egokiro interpretatzen ikusteko gaitasuna, erasoak eta indarkeriak prebenitzeko modu bakarra. Borobiltzeko, sexu harremanak ulertzeko era desberdinak dauden gizarte demokratiko batean banako eta gizatiar etikaren garapen bultzatu beharko luke.

Hezkuntza afektibo-sexual eskolan

Zer nahi dugu ikasleen curriculumean programa hau sartzerakoan? Zein helburu ditugu?

Nahi izanez gero hainbat argitalpen aipa ditzakegu, edota beste hainbatetan geuk (Gómez Zapiain, Ibaceta, Pinedo, 1997) proposatu ditugun helburuak azaldu eta hartara helburu teorikoen azalpen konplexua burutu. Baina orain batik bat praktikoa eta errealista izango den gogoeta egin beharko genuke.



Gure gazteen sexualitateari buruzko zer nahiko genuke benetan? Gure ikasleen edo seme-alaben sexualitatearen garapenari buruz zer nahiko ote genuke?

Oso zabalduriko erantzuna hauxe litzateke: nerabeentzako onena dena nahi dugu. Honek zer esan nahi du, ordea? Hauxe: behin bigarren hezkuntza bukatu eta gero neska-mutilak izan ditzatela behar adina baliabide beren behar afektibo eta sexualak kudeatzeko, izango dituzten lehen esperientzia horiek asebetegarriak, arduratsuak eta arriskurik gabeko eran gauzatzekoak izan daitezzen.

Gorago defendatu dugun sexualitate kontzeptuarekin koherentziaz arituz gero, sexualitatea ez genuke portaera sexualetara mugatu behar. Horregatik, lehen esperientzia afektibo eta emozionalen eragina du norberaren nortasun sexualak, hots, emakumezko edo gizonezko izateko erak, desio sexualaren esperientzia emozionalak eta berari lotutako afektuek. Arian, proposamenen helburuak kontzeptu hauei atxikiko litzaizkieke: nortasun sexuala, desio sexuala eta afektibitatea.

Nortasun sexualaren helburuak

Nortasun sexualaren esparruan gure helburua da norberaren sexualitatearen ondorioz munduan emakume edo gizon bezala egoteko modua garatzea. Azken batean, alderdi biologikoen, psikologikoen eta kulturalen integrazioa da (ikus sexualitate kontzeptua). Esaldi orokor hori honetan zehazten da:

- *Ikasleari munduan gizon edo emakume bezala egoteko modu pertsonalaren garapenean erantzule eta protagonista izan dadin laguntzea. Betiere abiapuntua maskulinitate-feminitatea esterotipo kulturalen erabateko malgutasuna izango da, auto-kontzeptu trinko bat indartzeko asmoz, eta beraz, sexualitatearekin egokitutako autoestima mailarekin.*

- *Ikasleari bere gorputza eta gorputz irudia onartzen laguntzea nortasun sexualaren oinarri bezala eta komunikabideen bitartez kontsumoaren estrategiek ezartzen dizkiguten edertasunaren arauetako zentzu kritikoa garatuz. Pertsonaren kalitatean jatorria duen edertasunaren ereduak garatzeko gaitasuna izatea eta pertsonaren xarma egoki garatzeko eta adierazteko trebezia nahikoak edukitzea.*

- *Ikasleari bere jarrera eta balio positiboak indartzen laguntzea, kulturak sexu biologikoei ematen dizkien ezaugarriekiko independente izanez. Androginian oinarritutako balioak garatzean datza, horrela pribilegio maskulinoak mantentzen dituen tradizio kulturalaren balioak indargabetuz.*

Desio sexualaren arloan eskolatzeko garaian espazioak sortzea proposatzen dugu, dagokion garapen psikosexuala kontuan hartuz. Espazio horrek utz diezaiola ikasleari bere desio sexualaren jatorria eta erregulatzeko moduak ulertzen. Teorian esplikatzen denari jarraiki, desio sexuala esperientzia emozional subjektiboa eta ekintzarako joera da. Joera hori agerikoa bihurtzen da portaera sexualetan. Desioaren esperientziak eta portaera sexuak intimitate pertsonala osatzen dutela aintzat harturik, eta bortxaezina dela ahaztu gabe, eskolatzeko norberaren intimitate sexualaren ulermena eta garapenean lagunduko duten erreferentziak soilik gehi ditzake. Iritzi orokor horietatik helburu hauek zehatz ditzakegu:



- *Desio sexuala ezagutzea eta auto-errealizazio gatasuna garatzea.*

- *Desioaren orientazioaren hainbat forma ezagutzea nortasun sexualaren orokortasunean integratzen laguntzeko, batez ere sexu bereko pertsonenganako lehentasuna agertzen dutenei. Desioaren orientazioa ezagutzuz gero, aukera sexualen aniztasuna errespetatzeko jarrerak sortzea ere bai.*

- *Desioaren asetzeari dagokionez, norbera eta besteak errespetatuko dituen etika sexuala garatzea inposaketak, gehiegikeriak edo erasoak ekiditeko.*

- *Bestearen behar sexualak egoki interpretatzea ahalbidetuko duen empatia gaitasun nahikoa garatzea.*

- *Portaera sexualak neurtzeko gaitasuna garatzea, modu horretan esperientzia afektibo-emozionala babestearekin batera, arriskua duten praktikei atxikitutako arriskuak ekiditeko.*

- *Sexuaren arteko komunikazioan desio sexualaren eta maitasun erromantikoaren arteko diferentzia bereizteko gaitasuna garatzea behar pertsonalak gardenki bereizteko eta itxuragabetzeak ekiditeko.*

Afektibitateari dagokionez, eskolatzean esperientzia sexualarekin lotutako afektibitatearen espazioak eratzea helburu esanguratsua da. Azalpen teorikoaren atalean aipatu dugunez, nola afektu sexu-afektiboak hala sozio-afektiboak eragin nabarmena dute giza sexualitatean. Horregatik, hezkuntzak afektu horien eraketa bere helburuen artean ezarri behar du. Honako hauek proposatzen ditugu:

- *Ikaslearekin kolaboratzea ahal den neurrian atxikimendu estilo ziuerra* gara dezan. Horrek esan nahi du autoestimu maila ona eta besteekiko konfiantza maila egokia edukitzea. Era berean, neurri orekatzaileak bultzatzea taldearen bidez zentzu

honetan zailtasunak dituzten pertsonentzat.

- *Autonomia pertsonala mantentzeko behar den segurtasuna emango duen autoestimu maila garatzea. Honetaz mintzatzen garenean autoestimu orokorrak eta autoestimu sexualaz (gorputz irudiaren segurtasuna, trebezia sozialak, intimitateko segurtasuna) ari garela zehaztea komeni da.*

- *Beste pertsonak behar ditugula eta beraien menpe gaudela onartzea ahalbidetuko digun segurtasun nahikoa garatzea. Horrek ez du esan nahi besteari men egitea edo alienatzea.*

- *Behar afektibo pertsonalak argi eta garabi banatzea eta asetzeko behar diren gaitasun sozialak garatzea.*

Eskolako sexu hezkuntzaren printzipio orokorrak

Gaur egun eskolan interbenitzeko hainbat modu daude. Batzuk ez dute aipatu ere egiten, sexu hezkuntza eskolatzetik at dagoen zerbait da horientzat. Beste batzuentzat sexu hezkuntza espezialisten erantzukizuna da eta horiek dira hezkuntza sisteman esku-hartu behar dutenak, baina kanpotik. Beste batzuek uste dute sexu hezkuntza curriculumean barneratu behar dela alderdi afektiboak eta sexualak pertsonaren garapen integralaren zati bat osatzen duten unetik beretik.

Bistakoa denez, guk defendatzen dugun eredu hiru garrena da, beste aukerak ere errespetatzen ditugularik, oraindik ere eskolatan bai baitaude. Ikusmolde honetatik abiatzen gara ondorengo esaldiak proposatzeko.

Honaino iritsita, garbi eduki behar dugu sexu hezkuntzak ezagutzen transmisioan zentratu behar duela. Prebentzioaren arloan bada-

kigu “ezagutzak” ez direla arriskuaren berri ematen diguten aldagaiak (Gómez Zapiain, 1993; Landry eta besteak, 1986; Downey eta Landry, 1997). Osterantzean, sexu hezkuntzaren funtsezko pisua jarrerak eduki behar dute. Jarrerak zerbaitetarako prest egotea esan nahi du. Horregatik, jarreteran arreta jartzeak zera dakar: espazioak irekitzea norberak bere sexuazio proiektuan protagonismoa beregain har dezan, erotismoa, desio sexualaren eta hortik sortzen diren portaeren esperientzia bezala ulertuta, positiboki barnera dezan pertsonalitatearen egitura orokorrean, eta euskarri emozionala eta intimitatearen espazioan besteekin harremana izan dezan.

Horregatik guztiagatik, sexu hezkuntzak ez du “programa” baten ezarpenean zentratu behar, baizik eta eskolan **prozesu** bat irekitzen saiatu behar du sexualitatearen trataera normaldu dadin. Sexualitateari buruzko diskurtso menperatzailea duen ingurune soziokulturalean bizi gara; komunikabideetan, gehienez ere, giza esperientzia sexualaren itxuragabekeria islatzen da. Hezkuntza orokorrak ikasleari esperientziak ulertzeko ezagunak eskaintzen badizkio, zergatik ez ditu eskaintzen eskolak giza esperientzia sexuala ulertu ahal izateko egintza espazioak (jarrerak eta ezagutzak)? Eskolak autoritate erreferentzia bihurtu behar du komunikabideen zentzugabekeriaren aurrean. Mezua honek zehatz zitekeen: “kalean edozer gauza entzungo duzu, eskolan koherentziaz landuko duzu”. Hori lortzeko profesionala baino beharrezkoagoa da sen ona, eta horrek irakaslearen profesionaltasuna bultzatzen du. Espezialisten zeregina laguntza moduan ulertzen dugu,

irakasleak prestatzeko, eta ez eskolako sexu hezkuntzaren erantzule zuzen bezala.

Proposatzen dugun programa irekia da, hots, ez dela programa bat esan nahi du, baldin eta programatzat hartzen duguna gelan mekanikoki eta kronologikoki antolatuturik egin behar diren ekin-tza multzoak badira. Aitzitik, Ikastetxeko Curriculum Proiektuak oinarritzko galdegaiak zein diren zehaztu behar du eta DBHko lau urtetan landu behar diren helburuetan adierazi behar dira. Horretarako, programak erabilgarri diren hainbat aktibitate proposatzen ditu.

Sexualitatea dimentsio anitzeko errealitatea bada, **zeharlerroko** traktatzen du. DBHko ikasle batek ugalketaren fisiologia oso ondo ulertzen du. Gauza bera esan al daiteke plazeraren fisiologiaz? Badakigu helburu kurrikularren artean gorputzaren ezagutzari dagozkionak daudela. Gorputzaren eta bere funtzioen ezagutzaren banean irakatsi behar da sexu erantzunak hiru fase dituela; desioa, eszitazioa eta orgasmoa. Beharrezkoa al da eskolan gai hori azaltzeko espezialista bat kontratatzea? Edozein nerabek kalean norbait erori egiten dela ikusten duenean, esperientzia hori ulertzeko oinarritzko euskarria eskolak emana izango dio: euskarria, grabitate legea, oreka eta abar. DBHko ikasle askok autoerotismoa erabiltzen dute. Ezin al du eskolak esperientzia hori ulertzeko behar den euskarririk (egintza espaziorik) eskaini?

Nerabeen garapen psikosexualari so egiten badiogu, eskolatzean langu behar diren galdera sorta batekin egingo dugu topo. Munduan emakume edo gizon bezala egoteko modu anitzek ingu-



rune sozialarekin eta erlazioen etikarekin zerikusi zuzena du. Desio sexualaren ulermenak eta portaerak zientziarekin lotuta daude. Desio sexualari lotutako afektuak (maitasuna, maitemintzea, erakargarritasuna, atxikimendua, erotismoa) oso ondo adierazten dira literaturan. Hizkuntza sexista eta diskriminazionala erabiltzen dela eta kontzeptu tekniko eta kolokialak zehaztasunez erabili behar direla ere hizkuntzaren alorrean ikasten da. Etikari dagokionez, arlo horretan eratu behar da etika pertsonal eta soziala Felix Lopezek (1990) proposatzen duen zentzuan.

Dimentsio afektibo-sexuala garantzitsua baldin bada pertsonen formazio integralean, zentro bakoitzeko **curriculum proiektuan** barneratu behar da. Egia esan, ideia hau ez da berria guretzat. Hezkuntza erreformaren legearen izpiritutik garbi ondorioztatzen den ideia da. Aipatu legeak dio ikastetxeek autonomia tarte bat badutela zentroko garapen kurrikulararentzat. Gure proposamena zera da: zentro bakoitzak, edo

hobeto esanda hezkuntza komunitate bakoitzak (ikasleak, gurasoak eta hezitzaileak) erabakitzea dimentsio afektibo-sexuala curriculumean txertatzeko egokitasuna. Horren ondoren, aurkezten dugun programa helburu hori lortzen lagunduko duen bitarteko soil bat besterik ez da.

Historikoki planteatu diren sexu hezkuntzaren ereduaren artean (Lopez, 1999), hezkuntza afektibo-sexualerako Uhin Bare programak ezaugarri hauek ditu: **demokratikoa, zientifikoa, irekia eta biografikoa**. Demokratikoa da gizarte demokratiko eta pluralista honetan giza sexualitatea ulertzeko dauden modu guztiak errespetatzen dituelako. Zientifikoa da nahikoa kontratatutako ezagutza zientifikoa oinarritzen delako. Irekia da ikastetxe bakoitzeko errealitara egokitu behar duelako. Biografikoa da ikasleari bitartekoak eskaintzen dizkiolako, esperientzia erotikorekin lotutako gertaerak bere biografian txertatzerakoan hartu beharko dituen erabakiak hartzen laguntzeko.



Programaren edukiak

Gure abiapuntua den sexualitatearen kontzeptuarekin eta planteatu ditugun printzipio orokorrekin koheretzia mantenduz, hezkuntza afektibo-sexualaren edukiak zeharka landu behar dira. Jarraian edukiak ikuspegi horretatik proposatzen ditugu. Aurretik, zera zehaztu behar dugu: edukia bezala ez ditugula ezagutzak soilik aipatzen, baita horien jarrerazko lanketa ere metodologia ez zuzentzailearen bitartez. Gauza ez da sexualitate irakasgaiak ematea, baizik eta adin honetako sexuazio prozesuan esanguratsuak diren galderak egiteko espazioak sortzea.

Zientzia alorrari gorputzaren, aldaketa anatomo-fisiologikoen eta nortasun sexualaren birdefinizioan horrek duen inplikazioaren ezagutza dagozkio. Desio sexualaren inguruko ezagutza eta norberaren esperientzia ezagutzen (erregulazio gaitasuna egikaritzen) laguntzen duen ezagutza. Giza erantzun sexuala hau da: ziur gaude DBHko ikasleek ez dutela arazorik ugalketaren fisiologiari buruz. Aitzitik, ezin dugu gauza bera esan plazeraren fisiologiari buruz. Ugalkortasuna aitatasun-amatasun ardurasuarekin lotutako gaitasun fisiologiko berrien erantzukizunetik ikusi behar da, eta ez hainbeste ugalketaren ikuspuntutik. Kontrasorkuntza ugalketa eta asetze erotikoen arteko bereizketa egiteko bitarteko bezala. Osasuna norberaren eta besteen babes bezala.

Arlo sozialetik gizaki bakoitzak nortasun sexualaren aldetik gizon-nezko edo emakumezko izateko duen modua aurkitzea garrantzitsua da. Generoen arteko rola, eta gizon-emakumeen arteko harremanak. Sexuen arteko erlazioen analisi kritikoa generoen egozte orain-

dik ere emakumeen eta sexu guxtiengoen artean diskriminazioa sortzen jarraitzen duen kulturaren. Portaera sexualen, autoerotismoaren eta erotismo konpartituaren ezagutza. Ugalketaren, aitatasun-amatasun arduratsuen eta nahi-gabeko haurdunaldien alderdi sozialak. Sexu askatasuna, gizon-zkoa edo emakumezkoa izateko hainbat moduren ulermena eta errespetua, hau da, aniztasunaren ulermena.

Hizkuntzaren eta literaturaren alorretik hiztegia, kontzeptu teknikoak eta kontzeptu kolokialak lantzen dira. Hizkuntza sexistaren analisisa. Literatura erotismoaren eta sexuazioarekin lotutako afektuen (pasioa, maitemintzea, atxikimendua, erakarpena, amodioak, desamodioak) fenomenologiaren adierazpide pribilegiatuena da. Hainbat autore eta pertsonaien sexuazio moduen eredu andana ere eskaintzen digu literaturak.

Etikaren alorretik hezkuntza afektibo-sexualerako Uhin Bare programak harreman erotikotik etika pertsonal eta soziala garatzen lagundu nahi du. Izan ere, alor honetan beharrezkoa da sexuen arteko erlazioen etika lantzea, batez ere generoekin erlazioan-ta sortzen diren diskriminazioak azpimarratuz. Portaera sexualetako

indarkeria, erasoak eta gehiegikeriak ere planteatu behar dira. Ugalketa eta amatasun eta aitatasun arduratsuari dagokion etika. Sexualitatearekin lotutako balioak lantzea oinarritzko dela irizten dugu: enpatia, atxikimendua, altruismoa, jarrera prosoziala, elkartasuna eta tolerantzia. Balio horietako bi azpimarratuko ditugu. Bata atxikimendua; atxikimenduen segurtasunetik sortzen den konfiantzak intimitatearekiko heldurra uxatzen du, eta hori beharrezko osagaia da esperientzia erotikoko konpartiturako. Bestea enpatia; besteak bizitzako edozein arlotan, eta bereziki esperientzia erotikotan, dituen beharrak egoki interpretatzeko beharrezkoa den sentsibilitatea ematen du.

Programaren egitura

Aurreko puntuetan hau azpimarratu dugu: nerabeen garapen sexualaren gai nagusiak nortasun sexuala, desio sexuala eta afektibitatea direla. Programak hiru gai nagusi horiek sei lan nukleotan banatzen ditu, aipatu gaiak gelara eramangarri bihurtzen direlarik (ikus 4. irudia). Lan nukleoak honakoak dira: pertsona sexudunak, sexu garapena, ugalketa eta sexualitatea, sexu portaera, afektibitatea eta sexualitatea, eta osasuna eta sexualitatea.

4. IRUDIA

Gai garrantzitsuak nerabeen garapen psikosexualean

Lan nukleoak

IDENTITATE SEXUALA
DESIO SEXUALA
AFEKTIBITEA

Pertsona sexudunak
Sexu garapena
Ugalketa eta sexualitatea
Sexu portaera
Afektibitatea eta sexualitatea
Osasuna eta sexualitatea

Programak DBH osoan zehar "ekorketa" bat egin nahi du gutxieneko eta oinarrizko gaiak lantzeko. Horrela, nerabeek beren sexuazio proiektua erregulatzeko behar dituzten bitartekoak bermatuko zaizkie. Lan nukleoen sekuentzia-zioa honako izatea gomendatzen dugu: DBHko 1. zikloan pertsona sexudunak, sexu garapena, ugalketa eta sexualitatea; eta DBHko 2. zikloan sexu portaerak, afektibitatea eta sexualitatea eta osasuna eta sexualitatea. Programaren xehetasun gehiagorekin ezin gara luzatu orain (Gomez Zapiain, Ibaceta eta Pinedo, 2000).

Programa integratzeko modua

Dimentsio afektibo-sexuala ardatz zentraletako bat da pertsonaren garapenean adin guztietan. Beraz, hezkuntza afektibo-sexuala diseinu kurrikularrean barneratu behar litzateke. Programa hau ikastetxeetako diseinu kurrikularrean sar dadin, honako baldintzak bete behar dira:

- *Eskola komunitate osoak (Eskola Kontseiluak) onartu behar du.*

Gurasoek zein irakasleek onartu behar dute programa barneratzea. Hortaz, beharrezkoa da OOGk onartzea. Eskola Komunitate osoak kontzienteki hartu behar duen erabakia da.

- *Klaustroak onartu behar du*

Programa barneratzeak ikastetxearen proiektua izan behar duela uste dugu. Programaren izaera kontuan hartuta, klaustro osoaren konpromisoa eskatzen du, nahiz eta irakasle bakoitzaren parte-hartzea desberdina izan zentroko erantzukizunen banaketaren arabera.



- *Irakasleen formazioa*

Hezkuntza prozesuan irakasleen formazio iraunkorra saihestezina da. Eta hezkuntza afektibo-sexualaren alorrean beharrezkoa da, zeren hezkuntzako eta beste espezialitateetako profesionalen formazio programetan ez dira landu izan giza sexualitatearen inguruko oinarrizko galderak. Oinarrizko formazioak arlo hauek jorratu beharko lituzke:

- Sexualitatearen kontzeptua. Hizkuntza komun baten bilaketa.
- Sexualitatearekiko jarrerak.
- Garapen psikosexuala nerabezaroen.
- Hezkuntza afektibo-sexualerako Uhin Bare programa. Oinarrizko printzipioak eta metodologia.
- Gelako interbentzio teknika aktibo ez zuzentzaileak.

- *Talde koordinatzailea sortu behar da zentroan*

Programaren zeharkako izaera eta metodologia direla-eta, benetan garrantzitsua da sexualitatearen oinarrizko alderdiak espezialitate desberdinetatik lantzea, hots, arlo desberdinetatik. Zeharkakotasun honen zailtasunetako bat ekintzak egoki koordinatzea da. Lehenago zera aipatu dugu: programak DBH osoan zehar "ekorketa" bat egin asmo duela, ikasleak bere prestakuntza afektibo-sexualean behar dituen oinarrizko puntuen lanketa bermatzeko. Horregatik, funtsezkoa da zentroan talde koordinatzaile bat sortzea etapa honetako kurtsoetan egiten diren aktibitateak koordina eta gainbegira ditzan. Talde koordinatzailea honako hauek osatu beharko lukete: zuzendaritzako ordezkari batek, orientatzaileak, arloetako ordezkariak eta tutoreak. Talde honek baliagarria eta eraginkorra izan behar du, beste edozein lan taldek bezala (ikus 5. irudia).



Bibliografía

- AMEZÚA, E. (1973): *Ciclos de educación sexual*. Bartzelona. Fontanella.
- AMEZÚA, E. (1979): La sexología como ciencia: esbozo de un enfoque coherente del hecho sexual humano. LUR argitalpeneko *I Semana de Estudios Sexológicos de Euskadi*. Donostia. Hordago.
- BOWLBY, J. (1969): *Attachment and Loss, Vol. I: Attachment* (Vol. I). London: Hogart Press. (Gaztelaniazko itzulpena: *El vínculo afectivo*. Paidós Iberica SA. Bartzelona, 1990).
- BYRNE, D. eta KELLEY, K. (1986): *Alternative approaches to the study of sexual behavior*. London. LEA.
- CARROBLES, J. A. (1990): *Biología y psicofisiología de la conducta sexual*. Madrid. Fundación Universidad Empresa.
- DOWEY, V. W. eta LANDRY, R. G. (1997): Self-reported sexual behaviors of high school juniors and seniors in North Dakota. *Psychological Reports*, sychological-Reports.
- FERNANDEZ, J (1998): *Nuevas perspectivas en el desarrollo del sexo y el género*. Madril. Pirámide.
- FERNANDEZ, J. (1997). *Género y sociedad*. Madril. Pirámide.
- GEER, J. H. eta O'DONOHUE, W. T. (1987): *Theories of human sexuality*. New York. Plenum Press.
- GÓMEZ ZAPIAIN, J. (1993): *Riesgo de embarazo no deseado en la adolescencia y juventud*. Vitoria-Gasteiz. Emakunde.
- GÓMEZ ZAPIAIN, J., IBACETA QUINTANA, P. eta PINEDO FERNÁNDEZ, J. A. (1997): *Proyecto de integración de la educación*

afectivo-sexual en la E.S.O. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.

- GÓMEZ ZAPIAIN, J., IBACETA QUINTANA, P. eta PINEDO FERNÁNDEZ, J. A. (2000): *Programa de educación afectivo-sexual, Uhin Bare, Educación Secundaria Obligatoria*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- HATFIELD, E. eta RAPSON, L. (1987): Passionate love/Sexual desire: Can the same paradigm explain both? *Archives of sexual behavior*, 16, 259-278.
- HAZAN, C. eta SHAVER, P. (1987).: Romantic love conceptualized as an attachment process. *Journal of Personality and Social Psychology*, 52, 511-524.
- KAPLAN, H. S. (1979): *Disorder of sexual desire and other new concepts and techniques in sex therapy*. New York. Simon and Schuster. (Gaztelaniazko itzulpena: *Trastornos del deseo sexual*. Bartzelona. Grijalbo, 1992)
- LANDRY, E. BERTRAND, J. T., CHERRY, F. eta RICE, J. (1986): Teen pregnancy in New Orleans: factors that differentiate teens who deliver, abort and successfully contracept. *J. Youth Adolesc.* USA, 15 (3), 259-274.
- LEVINE, S. B. (1992): *Sexual live. A clinician's guide*. New York. Plenum Press.
- LÓPEZ, F. (1990): *Educación sexual*. Madril. Fundación Universidad Empresa.
- LÓPEZ, F. (1995): *Educación sexual de adolescentes y jóvenes*. Madril. Siglo XXI.
- LÓPEZ, F. eta FUERTES, A. (1989): *Para comprender la sexualidad*. Estella. Verbo Divino.
- MARTINEZ-BELLOCH, I.

BARBERA, E. eta PASTOR, R. (1988): Medida de la masculinidad, feminidad y androginia psicológica. J. Fernández argitalpenean, *Nuevas perspectivas sobre el sexo y el género*. Madril. Piramide.

- REISS, L. (1983): Trouble in paradise: The current status of sexual science. C. M. David argitalpenean *Challenges in Sexual Science*. Like Mills: Society for Scientific Study of Sex.



Sexualitatea gelan:

giza bizipen sexuala irakaslearen ikuspuntutik



Jerónimo BELLIDO

Psikologoa, psikoterapeuta eta soziologoa.
Parisko Unibertsitatean Psikologia Klinikoan
espezialista

Batek "Gizona naiz" edo "emakumea naiz" esaten duenean birplanteatzen du beti krisian dagoen sexu identitatearen bilakaera dinamikoa. Helduon sexualitatea beldur eta larritasunetatik elikatzen da, baina baita ziurtasun eta plazertatik ere, eta hori da geurekin daramaguna eskolara irakasle bezala joaten garenean.

Gainera, kontziente gara gure alderdi bat (bizitako intentsitate subjektiboa) inkontzienteki eguneratu egiten dela unearikiko erlazio hori dela-eta. Geure "ideologia" eta balioak eta munduarekiko dugun ikusmoldea irristatzen dira burutsuki besteekin harremanetan jartzzen garenean.

Sexualitatea baldin bada bizitzari zentzu betea ematen diona, eta plazera baldin bada gure gorputzaren kontzientzia hartzeko gaitasunak sortzen dituena, eta aldi berean gure izatearen zentzu existentziala oinarritzen baldin badu, desioarekin lotutako gizakiekin erlazionatzeko eta gure maitasuna oinarritzeko beharra sortzen da. **Zer jar dezakegu, orduan, sexualitatea deitzen diogun horren barruan?** Edo, nondik abiatzen gara eskolan "Sexu hezkuntza" lantzen dugunean?

Hasteko, **desioa** jar dezakegu lehendabiziko mailan. Beste pertsonarekiko erakarpina sentitu eta ia aztoratzen gaituen bulkada indartsu eta adieraztezina da desioa. Horrek mugiarazten ditu begien bistan dauden identifikazio eta ukapen mekanismo mimetikoak. Izan ere, desioa hor dago, gure barne munduko zati bat da, gure inkontzientearen zati bat, nahiz eta horretaz ez ohartu.

Gure desioa onartzeak esan nahi du besteak estimulatzen egiten gaituela onartzea, bestearen gorputzaren irudiak gure atsekabearen hutsunea betetzen duela. Horregatik, gure libidoak bere gorputzaren eta gorputz zatien fantasia ezagutzen du gure gorputzaren baitan. Bestearen gaitasunek edo trebeziek libidinalki erakartzen gaituzte, eta ordura arte gure kontzientzian erreprimetuta egondako desiorik arraroenak sentitzera iristen gara:

desio pederasta, adibidez. Hala ere, hortxe errotzen da gure kulturaren efektu zibilizatzailearen alderdi positiboan dagoen gure **gizatasun** baldintzaren zeinua; hau da, **desioa onartzeak ez dakar derri gorrez desioa aurrera eraman beharra.**

Sexualitatearen eta **morboaren** larritasun patologikoa sortzen duena beti ukatu eta errepikatu egiten den sexu desioaren espazio hori da, kontzientziak ez baitu inoiz onartzen.


Modernitateko gure kultura rol estereotipatuen erreproduzioaren irudian eta **irudi falikoaren errepresentazio oparoan** (sexualitate produktiboa eta birproduktiboa) oinarritzen da. Horregatik, plazerak beti egokitu egin behar du **efektua "lortzeko"** (plazera, esperma, orgasmoa eta abar sortzea dei diezaiokegularik). Ideologia patriarkalaren ikuspegitik zera esan nahi du horrek: **desioa** dagoenean –eta beti dago– gizon bat egituratu egiten da, gizondu egiten da, bada-kielako desio horrek **desio hori gauzatzea** eskatzen duela. Beste

modu batera esanda, desioa eta desio horren gauzatzea egitura faliko eta matxista sostengatu eta birproduzitzen duen ekuazio sinbolikoan egikaritzen dira.

XX. mendeko lehenengo harkadetan psikoanalisiak barne espazioa kontzeptua barneratu zuen bere teorizazioetan. Sentimenduekin eta pentsamenduekin lotura zuten edukiez bustia zegoen kontzeptu hori. Merezi baino pisu gutxiago izan du mendebaldeko kulturaren. **Barne espazioan** kontzeptu honek sorgailu bat adierazten du. Sorgailu hori gai da aurrez sentitutakoa a posteriori metabolizatzen eta sinbolizatzen. Horrela, gizakiak kulturaren gaitasun giza-tiarra garatzen du, pultsio deuseztatzaileak norberaren burmuinean gestionatzen dituelako frustrazio zentzua ondo egokituz. Ondorioz, **bestearen errealitatea ezagutzeko gai** izango da, eta aldi berean, haurtzaroko omnipotentziari muzin egiteko gai ere bai.



Hezkuntza Afektibo-Sexuala: gure sexu dimentsioarekiko ezinbesteko adiskidetzea



Raúl DIAZ

Kanarietako Hezkuntza Kontseilaritzaren
Hezkuntza afektibo-sexualerako
Harimaguada programaren egilea.

Nietzsche
"Sexualitatea
arbuiatzea
bizitzaren aurkako
krimena da"

Gazteen sexualitatea egungo kulturaren gainditu gabeko ikasgaia

Gizaki sexudunak gara, eta hori ekidin ezina da. Giza sexualitatea oso-oso konplexua eta aberatsa da eta plazererako, samurtasunerako, estimurako, komunikaziorako, aitatasunerako, amatasunerako eta abarrerako atea irekitzen du. Ekidin ezina izateaz gain, ikaragarriko aberastasuna da. Aitzitik, gure zibilizazioa kultura judu-kristauan sustraitzen da, eta historikoki sexualitatearen kontzeptu mugatzailea eta erotofobikoa eduki izan da.

Sexualitatearen gaineko hezkuntza, informazio eta arreta gabezia gizarte osoan nabaritzen da. Halaber, hutsune hori are eta nabarmenagoa bilakatzen da gazteen artean. Gazteen sexualitatearen arreta da gaur egungo gizartearen gainditu gabe dagoen ikasgaietako bat. Nerabeek eta gazteek sexu emozioak, interesak eta portaerak bizitzen dituzte nerabezaroan esperimentatzen dituzten sexualizatze prozesuak direla-eta (organu genitalen heldutasuna, gorputz helduaren eraketa, pentsamendu formalerako sarrera, sexu desioaren esperientzia, erakarpena, maitemintzea eta abar). Dena den, gizarteak, oro har, ez du onartzen gazteak sexudun aktiboak izan daitezkeenik, eta ez du behar diren hezkuntza eta asistentziatzko bitartekorik bideratzen gazteek beraien sexualitatea positiboki eta osasuntsu bizi dezaten.

Denok (familiak, instituzioak, komunikabideak eta abar) **beste aldera begiratzen dugu** arduraga-



beki, eta ondorioz gazte askok egoera ezegonkorrean bizitzen dituzte bere lehen sexu harremanak. Hau da, informazio gutxirekin, prebentzio neuririk gabe, harremanetarako gaitasunik gabe, nahasketa eta antsietatez beterik eta abar. Hori dela-eta, kasu askotan lehen harremanak ez dira batere aberatsak izaten, eta zenbaitetan gazte osasuna arriskuan jartzera iristen dira.

Gainditu gabeko ikasgai honi aurre egiteko modurik onena sektore arteko esku-hartzeak garatzea da. Hots, gaztea gizaki oso eta integral bezala hartu behar da, eta sexualitate arloan behar batzuk dituela aintzat hartu behar da: heziketa, osasuna, familia, aisialdia eta beste hainbat premia dituena. (1) Eta hezkuntza? Hezkuntza instituzioaren erantzukizuna al da sexualitate arloko prestakuntza? Ez al da gurasoen erantzukizuna? Zer da guri dagokiguna? Zerbait egin al dezakegu gelan? Nola?... Irakurlearen kontzientzian galdera horietakoren bat piztea lortzen badugu, bide onetik goaz. Artikulu batek dituen mugak onartu arren, galdera gehienak argitzen saiatuko gara. Hasi aurre-

tik baieztapen bat luzatuko dugu, irmotasunez eta gogoz egindako baieztapena: **gazteen sexualitatearen arreta guztion erantzukizuna da, denon artean egin behar dugun zeregina da.**

Hezkuntza afektibo-sexuala bizitzarako heziketa bezala

Izaera afektiboko oinarrizko beharrianak. Hezkuntza afektibo-sexualaren helburua

Gure harreman sozial guztien artean pertsonen arteko harremanak nabarmentzen dira, hau da, pertsonok gertuko beste pertsonekin dauzkagun harremanetan ditugun beharrak. Nagusiki hiru dira behar horiek: segurtasun emozionala, sostengu soziala eta gorputz eta emozio intimitatea (López Sánchez, Félix. El derecho a la sexualidad placentera. Congreso Juventud y Sexualidad. Gobierno de Canarias, 1997).

Segurtasun emozionalak esan nahi du bizitza osorako lotuta sentitzen garen pertsonen aldetik babestua eta baldintzarik gabe maitatua sentitzeko dugun behar-

(1) Gazteen sexualitateari arreta emateko garatu diren politika integralen artean aitzindaria Gazteen Sexualitatearen Arretarako eta Heziketarako Plan Kanariarra da. 1997an sinatu zuten Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Gaietako Kontseilariak.



rra. Pertsona horiek atxikimendu irudiak deitzen direnak dira eta normalki gurasoak izaten dira. Haien funtzioa segurtasuna ematea da, hortik mundu fisikoa eta soziala esploratu ahal izateko. **Babes sozialak** integratuta eta onartuta sentitzeko dugun beharrari egiten dio erreferentzia, berdin taldeko partaide sentitzeari, beraiekin sozializatu behar dugulako eta ikasketa ugari elkarbanatu behar ditugulako. Azkenik, **gorputz eta emozio intimitatea** dugu. Txikitant gurasoen laztan, besarkada eta xuxurla anitzez betea egoten da. Nerabzarotik aurrera, ordea, harreman eta lotura afektibo-sexual estuak, intimoak behar ditugu intimitate horretarako. Esperimintatzen ditugun emozio berriak adierazi beharrean aurkitzen gara: desioa, erakargarritasuna, maitemintzea.

Bizitzarako heztea da gizakiaren benetako beharrek heziketaren ildo nagusia betetzea. Bizitzarako heztea ingelesa edo ordenagailua erabiltzen irakastea baino gehiago da, nahiz eta horiek ere beharrezko ikasketak izan. Gazteak gauzen zergatia eta zertarakoa jakitea bideratu behar du, konfiantza izaten, besteekin egoki erlazionatzen, erabaki arduratsuak hartzen eta abar.

Hezkuntza afektibo-sexualaren helburua da oinarrizko beharrian horiek asetzen laguntzen duten elementuak bultzatzea. Hori guztia lortzen da atxikimendu irudiekin erlazio egokia eta arina lagunduz, adiskidetasun harremanak eta elkartasunezko hartu-emanak bultzatuz eta pertsonak erlazio afektibo-sexual positiboak eta osasuntsuak izan ditzaten prestatuz.

Halaber, nahiz eta egungo gizarte eskolan saiakera handiak egiten ari den, esfortzu horiek batez ere

errendimendu akademikora zuzendutako gaitasun instrumentalak irakastera bideratzen dira. Izan ere, errendimendu akademikoaren gaineko presio soziala handia da. Beste hainbat heziketa helburu-balioen transmisioa, gaitasun interpersonealaren garapena, eta oro har, pertsonen garapen integrala-hezkuntza legeen sarreran gelditzen dira idatzita (LOGSE, zeharlerroen proposamena eta abar). Gorabehera askorekin, koherentziarik gabe eta kontraesanek beterik transmititzen dira ezkutuko kurrikuluaren bitartez.

Hezkuntza afektibo-sexualaren lan arloak Erlazioetarako etikaren kriterioak

Hezkuntza afektibo-sexualak gizakiaren oinarrizko behar afektibo-erantzuna eman nahi die, eta pertsonak harreman positiboak eta osasuntsuak izan ditzaten lagundu nahi du. Horretarako, erlazioetarako etikan oinarritu behar du. Proposamen etiko hori askoz ere gehiago garatu beharko litzateke, baina jarraian aipatzen ditugun

bost kriterioak oinarrizkoak eta ukaezinak iruditzen zaizkigu (López Sánchez, Félix eta Harimaguada Programa. Berdin arteko erlazioa. Cuadernos de Pedagogía, 1997).

- Sexuen arteko berdintasuna

Gizon-emakumeak genero diskriminaziorik eta pribilegiarik gabe elkar daitezten eta goza eta maita dezaten ahalegindu behar dugu. Ez dute berdinak eta uniformeak izan behar, baizik eta aniztasuna onartu eta berau gozatu berdintasunezko baldintzetan.

- Pertsonen arteko zintotasuna

Pertsona guztiek beren desioei, erakarpenei eta sentimentuei buruz egia esan dezaten bultzatzen dugu. Konfiantza eta segurtasuna sortuko duten kodeak eratu behar dira, konfiantza eza eta segurtasun eza ekidinez. Erlazio afektibo-sexualetan instrumentalizazioa eta ustiaketa ekidin nahi dira. Benetako intentzioak ezagutu behar dira erlazioa askatasun osoz bizitzeko.



- *Plazera, samurtasuna, komunikazioa eta partekatutako estimuak*

Beste pertsonetarako aktibitate afektiboa eta sexualak topaketa dakar; horretara iristen saiatu behar da beste pertsonari begiratuz, ukituz, mintzatuz, entzunez eta sentituz. Ezin ditugu gure intimitatea partekatzen duen pertsonaren plazerak eta sentimenduak ahaztu.

- *Erantzukizun partekatua*

Erlazionatzen diren pertsona biek hartu behar dituzte bere gain gertaera baten arriskuak eta ondorioak, eta hori helarazi behar zaie gazteei. Indibidualismorako joeraren ondorioz sarritan arazo baten erantzukizuna ondorioak ekidin ezin dituen pertsonaren gain pausatzen da, eragiten dituenaren betebeharrak bezala gelditu beharrean.

- *Lotura afektiboaren balioen aldeko apustua*

Sexualitatearen aukera anitzetako bat lotura afektiboak dira. Pertsonak estimua sentitzeko eta loturak egiteko duten gaitasuna modu konstruktiboz defendatu behar dugu. Dena den, lotzeko eskubidea defendatzen dugun segurtasun berarekin defendatu behar dugu lotura horiek desagiteko eskubidea. Askeak izan behar dugu elkartzeko, eta baita banatzeko ere.

Edukiak

Hezkuntza afektibo-sexualaren helburu zabalak lortze bidean, oinarritzkoa da izaeraren, ezagutzaren, estimuen eta portaeren alderdiak garatzea bai programa formaletan eta bai ez-formaletan. Izan ere, alderdi horiek faktore erabakigarriak dira gure behar interpersonaletarako. Alderdi horiek izaeraren eta munduaren eta bizitzaren



ikusmodearen faktoreei egiten die erreferentzia, faktore kognitiboei, gaitasun sozialen eta interpersonalen faktoreei eta faktore moral eta etikoei. Honako hauetan laburbil genitzake:

- *Giza sexualitatea*

Giza sexualitatearen arloan beharrezko ezagutza izateak pertsonari gauzak ezagututa ekitea ahalbidetuko die. Ezagutza horren barruan egongo lirateke: sexualitatearen kontzeptua, anatomia eta fisiologia, sexu portaerak, sexu erantzuna, sexu desioa, prebentzio metodoak, sorkuntza, haurdunaldia eta erditzea, antisorgailuak eta abar.

- *Autoestimua*

Seguraski edukirik garrantzitsua izango da, inork ezin baitu asetasunez erlazionatu beste pertsonarekin bere burua positiboki onartzen ez badu eta maitatua izateko eta maitatzeko gai sentitzen ez bada.

- *Autoeraginkortasuna*

Pertsonen arteko portaerak eramateko gai sentitzeak eta horren ondorio positiboak zein negatiboak aurreratzeak garapen afektibo-sexualaren garapena laguntzen du.

- *Barne kontrolaren lekua*

Gertatzen zaigunaren barne

erantzukizuna hartzeak harreman interpersonalak, erantzukizuna hartzea eta portaera osasuntsuak garatzea errazten du.

- *Munduaren, gizakiaren, sexualitatearen eta lotura afektiboaren ikusmolde positiboa*

Pertsonen arteko portaerak beharrezkotzat hartzen dituzten balioek eta moralak portaera horiek erraztu egiten dituzte.

- *Enpatia*

Enpatia, beste pertsonaren lekuan jartzeko eta bere estimuak partekatzeko gaitasun bezala ulertuta, oinarritzkoa da heziketa afektibo-sexualerako. Enpatia garatzeak komunikazio intimoa eta laguntza emozionala bultzatzea dakar.

- *Gaitasun sozialak eta interpersonalak*

Gaitasun horiek landuz sozialki modu eraginkorrean jokatzeko eta harreman interpersonalak hobetzeko tresnak eskaintzen saiatzen gara. Garrantzitsuenak hauek dira: komunikazio trebezia, emozioak adieraztea eta ulertzea, gatazkak konpontzea, presio edo xantaia egoeretatik ateratzea, erabakiak hartzea, baietz edo ezetz esatea eta abar.



Hezkuntza afektibo-sexualaren eredu biografikoa eta irakasleen papera

Azken urte hauetan kolektibo eta sektore askok aldarrikatu dute hezkuntza sexuala, baina planteamendu ideologiko anitzetatik abiatuz; zenbait eredu moralista pertsonen sexu bizitza moralki erregulatzeko saiateren dira; beste batzuk bilatzen duten bakarra sexualitatea gaixotasun motibo ez izatea da, eta osasunaren ikusmolde murriztatean oinarritzen dira. Harimaguada eredu demokratikoa, integrala, irekia eta biografikoa garatzen duten korronteen barruan kokatzen da, ezbairik gabe.

Ikusmolde **demokratiko** hori da LOGSEren planteamenduetan jasotzen dena hezkuntza afektibo-sexuala zeharlerro gisa planteatzen denean. Izaera demokratiko hori pertsonen biografari gordetzen dion errespetutik dator; sexualitatea ezagutzan, formazioan eta aukeraketa librea oinarritutako eraketa pertsonal bezala defendatzen du. Hezkuntza afektibo-sexualak, modu horretan ulertuta, pertsonak sexualitatearen aukera anitzen aurrean arduratsu eta osasuntsu bizi daitezela nahi du. Eredu hori ikasketa jarraituko prozesuen bidez garatzen da, eta prozesu horiek irakasleek, osasun arloko profesionalak, zerbitzu sozialek eta gurasoek garatzen dituzte.

Pertsonak -ikasleek- izan behar dute beraien sexualitatearen bizipena eraike behar dutenak, eta beraz, irakasleak **bitartekari** besterik ez du izan behar; hezkuntza afektibo-sexualaren edukien eta ikasleen biografia propioaren arteko bitartekari. Irakasleak sexologiako ezagutza, osasun kriterioak eta erlazioe-



tarako gaitasunak azaldu behar dizkio ikasleriari. Ez da bere egitekoa sexualitatea nola bizi behar duten esatea, hori ikasleek beraien erabaki beharko dute.

Ideologia pedagogikoa eta kriterio metodologikoak

Hezkuntza afektibo-sexualak beste ikasgaietan erabiltzen den metodologia eta planteamendu didaktikoak erabili behar ditu. Hezkuntza afektibo-sexualak prozesu dialektikoan oinarritu behar du, hots, prozesu horretan parte hartzen duten heziketa eragileen eta eragile sozialen arteko prozesu dialektikoan. Horiek ikaslea bere ikasketaren protagonista bihurtu behar dute, eta pertsonen promozio sozial eta pertsonalarekin eta ingurumenaren hobetzearekin konprometi dadin lortu behar dute. Ideologia pedagogiko hau oinarriko hamar printzipiotan zehatz genezake:

1- Esanguratsuen diren ikasketen eraikuntza segurtatzea.

2- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen kontestualizatzea.

3- Lan autonomoa zein kolektiboa bultzatzea.

4- Ikasketen globalizazioa laguntzea.

5- Hezkidetzaren praktikan gauzatzeta.

6- Partaidetza bultzatuko duen giro tolerantzia, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa sortzea.

7- Hainbat material didaktikoren erabilera bultzatzea mezu alternatiboak eta gutxituei leku eginez.

8- Gurasoekin koordinaturik lan egitea.

9- Eragile sozialek parte hartu ahal izango duten sektore arteko taldeak sortzea.

10- Formazio izaera duten prozesuen ebaluazioa egitea.

Gelako metodologiari dagokionez, ikerketan oinarritutako proposamenen aldeko apustua egiten dugu. Ikasleen interesak diagnostikatuko dituzten ereduak bultzatzen ditugu, hipotesiak eta lanerako planak demokratikoki erabakitzen dituztenak, eta prozesua garatzen eta ebaluatzen dutenak. Hori guztia gelan ekintza sekuentzia bat mantenduz eta horrela ikasketa esanguratsuen izaera bermatuz.

1- Aurretiazko interesak, ideiak eta jarrerak ezagutu eta motibatu.

2- Ezagutzak erraztu, informazio kontrastatu, esperientziak sortu eta trebeziak garatu.

3- Ikasitakoa erabili, egoerak konpondu, esperientzia berriak berregin eta hausnarketak barneratu.

4- Prozesua baloratu, ikasitakoa bildu, komunikatu eta bizitako prozesua zabaldu.

Hezkuntza afektibo-sexualaren integrazio estrategiak

LOGSEK zeharlerro bezala planteatu zuen hezkuntza afektibo-sexuala curriculumaren barruan. Formatu berritzailea da, orain dela hamar urte pentsaezina izango zatekeena. Dударik gabe, planteamendu ausarta da, baina praktikan zehazterakoan arazoak sortzen dira: ez du argi eta garbi zehaztutako espaziorik ez denborarik, ez eta testu libururik, ez irakasle ardurdunik, ez da ebaluaziorik egiten eta abar. Horrek zeharlerroak ukiezin bihurtzen ditu. Zeharlerroak, orokorrean, hezkuntza arloan zehaztugabe daude; presio akademiko indartsuak eta eskola eta kurrikulu antolaketa zorrotzak eta zurrinak markatzen eta mugatzen dituzte.

Zailtasun horiek guztiak konpultuan hartzen baditugu, garbi dago zeharlerroak integratu gabe daudela, eta hezkuntza afektibo-sexuala ere bai. Horregatik, hezkuntza profesionalentzat, eta oro har gizartearentzat, erronka bat da. Dena dela, urte hauetan hainbat ikastetxetako hezkuntza afektibo-sexualaren integrazio esperientziak ezagutu ditugu; ikastetxetik kanpoko pertsona baten hitzalditik edo jardunaldi zehaztatetik hasi, eta tutoretza planetaraino edo diziplinarteko

esperientzietaraino iritsiz.

Ikastetxetako errealitatea anitza da eta beraz, logikoa da garatzen diren integrazio prozesuak irakasle-konpromiso mailaren arabera edo sentsibilizazio mailaren arabera izatea. Edozein kasutan, aniztasun hori positiboa iruditzen zaigu, baldin eta zentroko planean heziketa afektibo-sexualaren integrazio sakonago eta benetakoa lortu nahi bada eta prozesu horren barruan kokatzen bada.

Ondorioa

Eskolak sexualitatearen diskurtso positiboa berea dea onartzeak eraldaketa kultural eta sozial itzela dakar, eta epe luzera baino ez da gertatuko, perspektiba historiko batean. Horregatik, LOGSEK ekarri duen aurrerakuntza esanguratsua izan arren, oraindik oso urrun gaude hezkuntza afektibo-sexualaren orokortzeaz hitz egiten hastetik. Gaur egun berrikuntzat

hartzen da eta hezkuntza instituzioen aldetik laguntza neurriak behar ditu.

Berrikuntzarako prozesu kolektiboak garatu behar ditugu sektore arteko lan taldeetan antolatuz (ikasleak, irakasleak, gurasoak, osasun arloko langileak, aisialdiko begiraleak, gizarte hezkuntzako langileak eta abar). Gehien sentsibilizatutako taldeok dinamizatzailerik egin behar dugu.

Gure ikasleak bizitza profesionalerako prestatu, optimizatu eta konpentsatu behar ditugu, baina baita bizitza pertsonalerako hezi ere. Burutu dezagun lan hori honako elementuak elkarbitzen diren testuinguruan: beraien interesak eta beharrak heziketa helburuekin, orainaldiko arreta etorkizuneko kezkarekin, ongizatea errendimenduekin eta plazera esfortzuekin.



Tailerra

Haur Hezkuntza (0-6 urte): eguneroko harremanetan bizi diren gertaeren azterketa



Amaia VAZQUEZ

Psikologoa eta sexologoa



Xabier ITURBE

Irakaslea eta sexologoa



Tailerraren helburua hezitzaileok, hurrek agertzen dituzten portaera sexualak direla-eta, ditugun bizipenak aztertzea izan zen, eta portaera sexualok garapen psikoafektiboaren barruan kokatzea, zernolako esanahia duten eta zergatik gertatzen diren jakin ahal izateko.

Metodologia praktikoa izan zen. Lehenengo atalean parte-hartzaileek taldeka gela barruan topatzen dituzten egoera sexualak aipatu behar zituzten, eta ondoren, egoera horietatik zeinek sortzen zieten izua edo errespetua. Agertu ziren egoerak honako hauek izan ziren: biluztasuna, autoestimulazioa, organu genitalekiko interesa, joko sexualak bai ikasleen artean eta bai irakasleekin eta irakaslearekin dau den kitzikapen egoerak.

Bigarren atalean, irakasleei beraiek haurtzaroan bizitutako zenbait egoera sexual edota sexualitatearen inguruan jasotako mezuak aipatzea eskatu zitzaizen. Alor honetan, eta laburbilduz, hiru hitz nabarmendu ziren: arriskua, debekua eta nazka.

Garbi dago, beraz, hiru bizipen horiek eta nahigabe (era inkontzientean) haurren sexualitatearen hurbiltzen gara. Maiz, haurren portaera sexuala dela-eta, gure segurtasun pertsonal eza mozorro gisa darabilgu ondoko bi argudio-tan oinarrituta: gurasoak kontra izango ditugula eta gelan ez gara inoiz horrelako egoera sexuarekin topatu.

Tailerrean bi argudio horiek aztertzen saiatu ginen. Gurasoen



atalean argi esan behar dugu gurasoak ez direla afektibitatea eta sexu hezkuntzaren etsaiak, ezta hain beldurgarriak ere. Hezitzaile askoren esperientzian eta urte luzeetan, urte latzenetan ere bai, ez da arazorik izan gurasoekin beren seme-alabei sexualitateari buruz mintzatu zaienean. Hori bai, gurasoak aliatu bihurtu behar ditugu. Guk beti esaten dugu Haur Hezkuntzako gurasoekin elkarlanean egon behar dugula afektibitatearen eta sexu hezkuntzaren arloa lantzerakoan. Une batean haur batek irakasleari bularra erakustea eskatzen badio, irakasleak askatasuna sentitu behar du hori egiteko, eta gurasoak jakin egin behar du haurrak zergatik eskatu dion hori. Dinamika horren bidez mamu dexente desegingo lirake.

Bigarren argudioa gelan egoera horiek ez direla agertzen zen. Tailerrean bertan adineko irakasle batek komentatutakoa azalduko

dugu. Irakasle honek esperientzia zabala du Haur Hezkuntzako geletan: ikasturte hartan 2 urtekoen gela zuen eta bat-batean egoera eta adierazpen sexual anitz behatzen hasi zen gela barruan. Berak beti entzun izan zituen haurren sexualitatearen inguruko gauzak, baina bere geletan hori ez omen zen gertatzen. Ikasturte hartan, berriz, gelako bazter guztietan ikusten zituen adierazpen sexualak. Zer aldatu zen, haurrak ala bere portaera? Berak garbi aipatu zuen bera zela aldatu dena, irekiago zegoela, hurrek libreki adierazten zutela euren desioa eta bera ere inplikatzeko zutela beren jokoetan.

Laburbilduz, lehenengo zati honetan irakasleen beldurrak, zalantzak eta abar argitzen saiatu ginen.

Bigarren atalean irakasleek aipatutako sexu adierazpenak garapen psiko-sexu-afektiboan kokatu genituen.



SEXUALITATEA ETA AFEKTIBITATEA GARATZEKO PROZESUA ETA EZAUGARRIAK

0-3 URTE ---- AHO aroa ---- 1. ---- 12 hilabete
---- 2. ---- 12-36 hilabete

Aurreneko aroa

- Energia sexuala eta erogenizazioa: ahoa eta ezpainenetan.
- Objektu sexuala: amaren bularra.
- Gozamenaren bizipena erabat lotuta dago amaren bularrarekin.
- Ezaugarri oso garrantzitsua: lotura afektiboa oso lotura epidermikoa da, amatasunaren prozesuarekin oso lotua: laztanak, musuak, besarkadak eta azal larruarekin oso kontaktu zuzena.
- Aho orgasmoa: mugimendu kloniko eta nahigabekoak ahoan, aurpegian eta lepoan, haurrak amaren bularra hartzen duenean. Beraz, orgasmoaren zeregina garbi adierazita dago.

Bigarren aroa

- Energia sexuala eta erogenizazioa: ahoa, gorputz osorantz, eta noski, organu genitalera.
- Aho gozamina beste gozamen iturriekin elkartzen da, gorputzaren ezagutzarekin batera.
- Objektu sexuala: ama osoko objektu gisa.
- Kaka eta pisaren kontrola fase sexualtzat jo behar dira.
- Sexu-psiko sozialaren barneratzea (femeninoa eta maskulino) organu genitalen ezagutzari esker.

2 urtekoen geletan zer gerta daitekeen azaldu behar dugu. 2 urterekin neskato eta mutikoek euren gorputzak ezagutzen eta errekonozitzen dituzte, exhibizionismoaren

garaia hasten da. Oso garrantzitsua da guk jarrera hauek ez garatzea, kontrakoa baizik, hitz goxoak eta ederrak esan behar dizkiegu ezinbestekoa dutelako euren gorputzak maitatzea autoestimua garatzeko.

Ez dugu beldurrik izan behar gorputza erakusteko garaian sedukzio handiz egiten badute, ez dira perbertsoak eta ez doaz harantzago. Harantzago doana gure burua izaten da. Beraiek berehala joaten dira beste gauza bat egitera. Horrekin batera, besteen gorputzarekiko interes handia dutela esan beharra daukagu eta besteena ere ikusten saiatzen dira, bai neskena eta bai mutilena. Lehendabiziko joko sexualak dira, baina ez ditugu nahastuko hurrengo aroan gertatzen direnekin. Bi urterekin oraindik ez dira gizarteratu, elkarren ondoan daude, baina ez elkarrekin. Irakasleak sarri laztandu eta besarkatu behar ditu, azken finean, amaren funtzioa betetzen du-eta.

Kaka eta pisaren kontrolaren inguruan esan behar da oso garrantzitsua dela prozesua ez aurreratzeari. Normalean bi urte eta erdiren inguruan kontrol hori izateko nahiko helduak izaten dira. Haurrentzako plazera izan behar du pisaren edo kakaren kontrola egitea, maite ditu ekintzok eta ez dira nazkagarriak beraiantzako. Hortaz, guk ere maite egin behar ditugu bere kaka eta pisa; ez ditu-



gu behartu behar lehenbailehen ikastera, eta ez ditugu hitz itsusiak erabili behar alde egiten bazaie.

3-6 urte, lehenengo pubertaroa

- Identitate sexuala.
- Exhibizioa.
- Autoestimulazioa.
- Joko sexualak.
- Maitemintzeak.

Adin hauetan identitate sexuala lantzen ari dira. Oso prozesu konplexu eta zaila izaten da beraiantzak. Mutilak eta neskak izaten ikasi behar dute. Orain arte generoaren bereizketari esker bazekiten hori. Orain, ordea, organu genital desberdinei esker ikasiko dute berau. Gorputzarekiko jakin-minak segitzen du, exhibizionismoa areagotu egiten delarik. Praktika sexuala nagusitzen da, autoestimulazioarena. Organu genitalen aurkikuntza ukituz egiten dute, eta adin honetan energia sexuala genitalera jaisten denez,

gustua eta gozamenaren sentsazioak sentituko dituzte. Beraz, eta adin honetan dagoen behar sexuala kontuan hartuz, masturbazioaren praktika sarritan gertatu ohi da.

Esan beharra dago edozein unetan eta edozein lekutan masturba-tzen direla, gelan ere bai. Oraindik ezin dute intimitatearen zentzua ezagutu eta haietzako gozagarria dena besteentzako ere bada. Irakaslearen jarrera naturaltasunarena eta normaltasunarena izango da. Ezin dugu inolaz ere portaera hori erreprimitu, alderantziz esango nuke nik, egun, modu positiboan baloratu beharko genuke. Esate baterako: zein polita den, ezta? Edota zeinen ongi pasatzen ari zaren!

Ez dugu pentsatu behar hori

guztia esatean horrelako praktikak bultzatzen ari garenik. Kontuan hartu behar dugun gauza bakarra zera da: ea noiz gertatzen ari den autoestimulazio konpulsiboa, alegia, haur bat errealitatek atertzten duen masturbazioa denen ala ez. Kasu horretan ere, inoiz ez dugu esango hori ez egiteko, horren atzean ere beti baitago arrazoiren bat erregresio hori izateko, eta normalean familian gertatzen den zerbait izan ohi da. Hala bada, horri guztiari buruz berba egingo dugu familiarekin, eta haurri begietara begiratuz eta gela barruan zerbait egiteko proposamena eginez lagunduko diogu.

Masturbazioarekin batera maitemintzeak eta joko sexualak izaten

dira nagusi adin honetan. Joko sexual horietan organu genitalek parte hartzen dute eta sarri oso erotikoak izaten dira. Helduen sexualitatearen adierazpenak ere errepikatzen dituztela esan behar da. Beraz, ez dugu izutu behar horrelako egoe-rak ikusten ditugunean. Mezu bakarra eman behar dugu; ezin da minik eragin eta ezin da minik hartu.

Bukatzeko, esango genuke, Haur Hezkuntzan sexualitatea lantzea oso erraza dela, etengabe agertzen baitzikigute euren gogoak eta beharrak. Guri, hezitzaileoi, euren ondoan egotea dagokigu eta ulertzen ez duten bizipen munduan konplizeak izatea.



Tailerra

Lehen Hezkuntza (6-12 urte): egunero-ko harremanetan bizi diren gertaeren azterketa



Mertxe MURUA
Psikologoa eta sexologoa



Garbiñe MERINO
Psikologoa eta sexologoa



Ikastaroaren abiapuntua taldearen aurkezpena izan zen. Bertan beraien izenak, lantokia, ikasleen adinak eta ikastaroarekiko zituzten espektatibak azaltzea eskatu genien. 18 partaide izan ziren, eta horietatik zortzi Magisteritzako ikasleak ziren; berez, ez zuten lan esperientziarik.

Lanari hasiera emateko dinamika hau planteatu genien: taldeka sexualitatearekin lotuta zeuden egoera beldurgarriak edota zailak iruditzen zitzaizkienak idatzi zituzten. Ondoren, ozenki azaltzerakoan, gai orokorrekin lotu genituen eta puntu guztiak hasi ginen aztertzen. Bertan atera ziren gai orokorrak honako hauek izan ziren:

- Identitate sexuala.
- Homosexualitatea.
- Gurasoen erreakzioaren beldurra.
- Heziketa Bereziko ikasleekin zer egin.
- Bizipen eta agerpen sexualak nola bideratu gela barruan.

Hau guztia lantzerakoan bi zutabe izan ziren nagusi:

1. Jarrera sexualaren garrantzia heziketa sexuala lantzerakoan. Askotan kezkatzen gaituzten gauzak dira zer erantzun, zer esan, nolako informazioa eman...Gure ustez, garrantzi gehien daukana zera da: transmititzen dugun jarrera eta mezu ezkutuaz ohartzea. Garrantzitsuena da jabetzea heziketa sexuala beti egiten ari garela, nahiz eta ez hitz egin.

2. Gaurko gizartean jarrera orokorra oso normatiboa da, hau da, modaren arabera agintzen digute nola bizi behar dugun sexualitatea, zer den normala eta zer ez, zer espero den emakume batengandik eta zer gizon batengandik... Garran-



tzitsua da diskurtso horretan norberak bere desioa zein den deskubritzea, hausnartzea eta onartzea. Horrek bakoitza bere buruarekin gusturago sentitzea bultzatuko du.

Horrek guztiak eztabaida ugari suspertu zuen eta horrekin jardun ginen lehenengo saioan.

Bigarren saioan sexualitatearen garapena landu genuen. Bertan sexualitatea adinaren arabera nola aldatzen den eta zein berezitasun dituen azaldu genuen. Azalpen hori 6-12 urte bitartean kokatu genuen eduki hauekin:

- Identitate sexuala.
- Rol eta eredu sexualak.
- Kuriositate eta kontaktu sexualak (galderak, bestearekiko curiositate sexuala, joko sexualak...).
- Aldaketa fisiko eta psikologikoak.
- Moral sexuala.
- Autoerotismoa eta gorputz eskema.



Saioa bukatzeko, eta hala eskatzen zutenez, hori guztia praktikan nola eraman daiteken azaldu genuen. Pista batzuk eman genizkien gure laneko esperientzia azalduz.

Amaitu aurretik partaideek idatziz saioak ebaluatu zituzten.



Uhin BARE tailerra

Hezkuntza afektibo sexualari buruzko programa



Javier GOMEZ ZAPIAIN

EHUko Psikologia Fakultateko Nortasuna,
Ebaluazioa eta Tratamendu Psikologikoen
Departamentuko irakaslea

Javier Gómez,
Pilar Ibaceta eta

Josean Pinedo

osatutako lana dugu

Uhin Bare proiektua.

Programa honen jatorria ezagutzeko bi aurrekari dira kontuan hartu beharrekoak. Lehenengoa, osasun esparrutik HIESa prebenitzeko eta kontrolatzeko azaldutako interesa da. Aipatu gaixotasunaren ezaugarri bereziak direla-eta, eta gaixotasunaren larritasunaren aurrean, tratamendurik onena prebentzioa da. Horrexegatik, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako HIESa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Planaren arduradun teknikoak oso lan baliotsua ari dira garatzen hainbat esparrutan, eta bereziki hezkuntza esparruan. Hamarkada bat baino gehiago daramate eskolan garatzeko material oso egokia lantzen, eta material hori irakasteko, irakasleen prestakuntza iraunkorra burutzen. Hala ere, alde batetik eskolan berariaz esku-hartzeko beharra begi-bistakoa bada ere, hezkuntza sisteman ez dago giza sexualitateari buruzko oinarritzko prestakuntzarik, eta hori oztupo handia da honako programa hau garatzeko.

Bigarren aurrekaria, hezkuntza erreforma eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berriro ere ezarri izana da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak garrantzi berezia ematen dio ikasleen curriculum proiektua lantzeari; curriculum proiektuan elkarbizitzarekin eta balioen garapenarekin erlazionatutako hainbat alderdi lantzeari ematen zaio garrantzia. Hezkuntza erreformaren irizpide berritzaileen bitartez, gai jakin batzuk, duten izaera kontuan hartuta, zehar gai bezala lantzeko beharra azpimarratzen da.

Beraz, hezkuntza sexuala modu irekian landu behar da hezkuntza sistematik, ikastetxeek esparru honetan dituzten premiei erantzunez, eta giza sexualitatearekin erla-

zionatutako arriskuak prebenitzeko oinarri sendo bat eskainiz. Bestalde, premia hori eta berrikuntza pedagogikoa burutzen ari den une hau bat datoz.

Horrela, 1996. urtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Osasuna Batzorde Mistoak, funtzio nagusiztat osasunerako hezkuntzaren esparruan hainbat ekimen sustatzea duenak, Euskal Herriko Unibertsitateari hezkuntza afektibosexuala garatzeko programa bat eskatu zion.

Eskaera hori hainbat fasetan gauzatu zen. Lehenik eta behin, gelan erabiliko ziren materialak landu ziren. Bigarrenik, programa bederatziz zentro pilotutan landu edo garatu zen, Autonomia Erkidego osoko ikastetxetan, hain zuen ere. Irakasleen prestakuntza landu zen eta programa pixkanaka-pixkanaka ezarri zen. Hirugarrenik, izandako esperientzia pilotuen arabera programa egokitu egin zen. Eta azkenik, programaren hedapen faseari ekin zitzaion.

Programaren oinarriak

- Sexualitatea alderdi anitzak dituen errealitatea da, hori guztia kontuan hartuta, metodologia zeharkakoa izango da.

- Programak Bigarren Hezkuntzako ikasleen garapen psikosexualera egokitu behar du.

- Programaren oinarrian hezkuntza eredu demokratikoa, zientifikoa eta irekia aurkituko dugu.

- Eskolatzeak irauten duen bitartean gai nagusien tratamendua ziurtatzean datza.

- Sexualitatearen tratamendua normalduko duen PROZESU bat irekitzean datza. Materiala helburu lortzeko bitarteko bat besterik ez da.

- Programa IREKIA da, ikaste-



txe bakoitzaren errealitatera egokitu behar dena.

- Erabat BATERAGARRIA da, eta hain zuzen, bestelako programekin aberastea komeni da; hala nola hezkidetzari buruzko programekin eta autoestimuari buruzko programekin.

Programaren helburuak

* Maila pertsonalean:

- Nork bere buruaren iritzi ona garatzea, gizona edo emakumea izateko erari dagokionez

- Autoestimu maila ona garatzea, hala maila orokorrean nola sexualen.

- Gizarte trebeziak garatzea, beharizan afektiboak erregulatzeko eta asetzeko balioko dutenak.

* Hezkuntzari dagokionez:

- Ezagutzak eskuratzea, gero horietan esperientzia sexuala eta giza esperientzia oinarritzeko.

- Eskolan gertuketarako esparruak sortzea dudak eta arazoak konpontzeko.

* Gizarte mailan:

- Etika pertsonala eta soziala garatzea.

Eskolak gai izan behar du ikasle-ari sexuaren arloko esperientziara heltzeko behar dituen bitartekoak zuzkitzeko, helera hori erantzukizunez eta arriskurik gabe gerta dadin.



Programaren egitura

Nerabeen garapen psikosexualean funtsezko hiru alderdi daude: identitate sexualaren, sexu grinaren eta afektibitatearen taxuketa.

Egitarau honek lanerako sei gune ditu eta horien artean aztergai ditugun hiru gai nagusiak landuko dituzte.

Nerabeen garapen psikosexualean gai nagusiak	Lan nukleoak
Sexu identitatea	Pertsona sexudunak Garapen sexuala
Sexu desira	Ugalkortasuna eta sexualitatea Gizakien sexu portaera
Afektibitatea	Sexualitatea eta afektibitatea Sexualitatea eta osasuna

Lan nukleoak DBHn nola antolatatu

Programa hau irekia da eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitu behar da, beraz hurrengo antolamendua proposatzen da malgutasunez erabiltzeko.

1. DBH eta 2. DBH	3. DBH eta 4. DBH
Pertsona sexudunak Garapen sexuala Ugalkortasuna eta sexualitatea	Gizakien sexu portaera Sexualitatea eta afektibitatea Sexualitatea eta osasuna

Programa integratzeko modua

1. Curriculum Proiektuan integratzea.
2. Gurasoen adostasuna eta parte-hartzea Ordezkaritza Organo Gorenaren bidez.
3. Irakasleen prestakuntza.
4. Programaren koordinazio taldea ikastetxean.
5. Gutxiengo programa DBHko kurtso bakoitzean lantzea.

1. Klaustroan programaren integrazioa onestea

Gure ustez, programak ikastetxearen proiektuan integratuta egon behar du. Programaren izaera dela-eta, klaustro osoak konpromisoa hartzea ezinbestekoa da, nahiz eta irakasle taldea osatzen duten kideen parte-hartzea desberdina izan, ikastetxeak berak irakasle bakoitzari emandako erantzukizunen arabera.

2. Ordezkaritza Organo Gorenak programaren integrazioa onartzea

Programa integratu ahal izateko, gurasoek eta irakasleek ados egon behar dute. Beraz, ezinbestekoa da Ordezkaritza Organo Gorenak aipatu integrazioa onestea. Eskola elkarte osoak hartu beharreko erabakia da, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan hezkuntza afektibo-

sexuala integratzea edo ez integratzea.

3. Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntza iraunkorra hezkuntza prozesuan nahitaez kontuan hartu beharreko alor bat da. Hezkuntza afektibo-sexualari dagokionez, bereziki garrantzitsua da irakasleen prestakuntza iraunkorra, izan ere, giza sexualitatearen

inguruko oinarriko hainbat alderidiren azterketa, normalean, ez da hezkuntzako eta beste hainbat espezialitatetako profesionalen prestakuntza programan biltzen. Oinarriko prestakuntzaren barruan honako puntu hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- Sexualitatearen kontzeptuaren inguruan, hizkuntza komuna lortzea.
- Sexualitatearen aurreko jarrera desberdinak.
- Garapen psikosexuala nerabezaroan.
- Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko Uhin Bare programa. Oinarriko printzipioak eta metodologia.
- Gelan esku-hartzeko teknika aktiboak.

4. Programaren koordinazio taldea ikastetxean

Programaren zeharkakotasuna kontua hartuta, eta programaren metodologiarekin erlazionatuta,

oso garrantzitsua da sexualitatearen oinarriko alderdiak hainbat espezialitatetik lantzea, alegia, arlo anitzetatik lantzea. Zeharkakotasunak berez duen zailtasun nagusia jarduerak behar bezala koordinatzea datza. Eskuliburu honetako beste puntu batean esan genuen arabera, programa DBH osoan landu behar da eta alderdirik garrantzitsuenak gogortu behar ditu, hartara ikasleek euren prestakuntza afektibo-sexuala behar bezala burutzeko behar dituzten funtsezko puntu guztiak lantzen direla ziurtatzeko. Horrexegatik da beharrezkoa etapa honetako ikasturteetan zehar garatzen diren jarduerak koordinatuko eta zainduko dituen talde bat osatzea ikastetxean. Koordinazio taldearen barruan zuzendaritzako ordezkarik bat, orientatzaile bat eta arloetako ordezkaririk bat eta tutoreak bilduko dira. Koordinazio taldea funtzionala eta eragilea izango da, beste edozein lan talde bezalaxe.

5. Gutxieneko programa DBHko kurtso bakoitzean lantzea

Uhin Bare programa programa irekia da, ikastetxe bakoitzak bizi duen errealitatera egoki daitekeena. Ikastetxe bakoitzaren beharren eta aukeren arabera, programa zabaltu edo murriztu egin daiteke. Proposatzen ditugun zenbait jarduera guk aurkezten ditugun bezalaxe erabil daitezke, edo aldatu edo beste jarduera batzuek ordezkatu. Programa ez da nahitaez mekanikoki ezarri behar, alegia, ez dira jarduerak bata bestearen jarraian burutu behar.

Baina ikuspegi metodologikoa kontuan hartuz gero, ikastetxe bakoitzak DBHko ikasturte bakoitzean zehar jardueren programazio bat lantzea gomendagarria da, hartara helburuak lortzeko landu beharreko funtsezko puntuak aztertzen direla ziurtatzeko.

